



Jakingarriak

Heziketa fisikoa (II):
Eskola-kirola





Argitaratzailea:	Mondragon Unibertsitatea Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Laguntzailea:	Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Erredakzioa:	Mondragon Unibertsitatea Humanitateak eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea Dorleta auzoa z/g 20540 Eskoriatza Tfnoa: 943-714157 Faxa: 943-714032 Helbide elektronikoa: liburutegia@huhezi.edu eta hazitegi@huhezi.edu
Zuzendaritza:	Nerea Alzola
Monografikoaren Editoreak:	Nerea Alzola, Xabier Arregi, Izaskun Uribesalgo
Erredakzio Kontseilua:	Nerea Alzola, Izaskun Uribesalgo, Oskar Carrascal, Xabin Arriola, Aitor Alberdi Xabier Arregi eta Elena Lopez de Arana
Erredakzio Idazkaria:	Elena Lopez de Arana
Itzultzailea:	Edorta Agirre
Euskara Zuzentzailea:	Asier Irizar
Diseinua:	A. Azkarate
Inprimategia:	Antza inprimategia
L.G.:	SS-981/92
ISSN:	1697-6215



Martin Berecibar (2007)



Martin Berecibar (2007)

BERRI BIBLIOGRAFIKOAK

6 Liburu berrien albistek

12 Esan dute

GAI MONOGRAFIKOA

Heziketa fisikoa (II): Eskola-kirola

16 Sarrera

18 Uribesalgo, Izaskun

Eskola-kirola: gogoeta batzuk

24 Ugalde Usandizaga, Dorleta

Eskola-kirola bidegurutzean

28 Ortuzar Oyanguren, Iñaki

Eskola-kirola


36 Martínez de Santos Gorostiaga, Raúl

Ludomotrizitatea eskolan, posible al da horrelakorik?

48 BALIABIDEAK

- Haur eta gazte literatura
- Fitxa didaktikoak

Liburu berrien albisteak



Blández Sánchez, Julia (2000). *Programación de unidades didácticas según ambientes de aprendizaje*. Zaragoza: INDE.

Badira urte batzuk liburu honen lehenengo edizioa argitaratu zela, 7-8 bat urte bai. Ez da, beraz, labetik atera berria, nahiz eta egileak egiten digun proposamena esperientzian oinarritutako denboratik ateko proposamena den.

Hezkuntza fisikoaren arloan jarduteko ez ohiko proposamen didaktikoa aurkezten digu egileak lan hone-

¹ Aurrerantzean HF

tan. Berak zuzenduriko HFko irakasle talde batek praktikan mamitutako esperientzia hezitzaile aberasgarri bat aurkezten digu labur eta arin. Lehen hezkuntzako HFkoa arloko 1.-2. zikloetarako diseinatutako ikas-irakas prozesuen esku hartze didaktiko berezi eta garai-kide batean datza esperientziaren eta liburuaren ardatza. Aipaturiko esku hartze didaktikoaren oinarria ikasketa-giro motore esanguratsuen diseinua da. Horietan, ikasleek ikaskuntza motoreak egituratzen dituzte euren arteko elkarreragin motorearekin, eta espazioarekin eta materialarekin duten elkareraginaren bidez. Ikasle-en jarduera ez da jarduera zuzendua. Askatasunaren, ikasketagiro diseinuen eta "pedagogia ikusezinen" teorien esparruan kokatu dezakegu egileak egiten digun proposamen hau (B. Bernstein 1989).

Esan bezala, "pedagogia ez zuzentzaileen" esparru teorikoarekin bat dator egilearen proposamena. Horietan, ikasleak bere ikaskuntza motoreak egituratzen ditu, eta bera da ikas-irakas prozesuaren ardatza; irakaslearen aldetik ez da inolako aginte zuzentzailerik. "Eraikuntza" prozesu danbada horren abiapuntua ikasketagiro esanguratsuen diseinuan datza. Horretarako irakasleak bi baliabide nagusi ditu: espazioa eta materiala. Horrela irakaslea diseinugile bihurtzen da, eta jarduerarekiko ikasleriaren motibazioa mantendu eta bizitzeko helburuaz, espazioa eta materiala egokitzen ditu aurrez programatutako hezkuntza helburuak lor ditzaten ikasleek. Irakasleak ez du ikas-irakas prozesua zuzentzen, hura gidatu eta diseinatzen du; ikasleek gutxienezko irizpide batzuen arabera "askatasun motore" osoa dute. Propo-

² Aurrerantzean LH.


samen honen bidez ikaskuntza motoreak era naturalean ematen dira, nor bere erritmoari jarraiki.

Liburua arina da, oso eta praktikotasuna du ezauzgarrikeri aipagarriena. Lehenengo ataletan aipaturiko irakasle talde horren praktika didaktikoaren iturri teoriko-pedagogikoetan murgiltzen da. Ondoren, teoria horiek mamitu eta HFaren arloan txertatzen ditu, jokabide-motorea transferentzia horren ardatza delarik. Programazioan eta hezkuntza prozesuen diseinuan sakondu eta gero 9 egitasmo-didaktiko aurkezten dizkigu egileak, egitasmo praktiko askoak inondik ere.

Alternatiba horrek HH psikomotrizitatea lantzeko erabiltzen den irizpide metodologikoen luzapen erabat logiko dirudi, alegia, haur hezkuntzako etapa amaitu eta ikaslea LHko etapan murgiltzen denean, zeinetan ikaskuntza instrumentalei lehentasuna ematen hasten zaizkien. Horrela bada, HHn lantzen den "esperientzia-espresio sensore-motorea", HFa (LHan) espezifikoki lantzen hasteko (LHko HFko curriculum) alternatiba pedagogiko interesgarria izan daiteke egileak proposatzen diguna.

Oskar Carrascal
Mondragón Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

³ Aurrerantzean HH



Herrigel, Eugen (2004). *Zen en el arte del tiro con arco*. Buenos Aires: Kier.

Herrigel irakasle eta filosofo alemaniarra (1884-1955) bere esperientzia pertsonala agertzen duen liburu honen bitartez; Japonian praktikatzen den arku-tiroa aitzakiaz hartzen du Zen filosofiari hurbilketa bat egiteko.

Gaur egun bizi garen gizarte kapitalista honetan, etorkizunean pentsatzen ari garela ihes egiten digu

orainak, iraganeko kateek preso hartuta; bizia bizi gabe bizi gara. Liburu hau erreferentzia izan daiteke dinamika honi kontra egiten hasteko.

Kontinente zaharrea jarduera fisikoak kirol mozo-roa janzten du, arlo guztietan errendimendua helburu duen gizarte honetan. Ekialde urrutiko lurraldeetan, ordea, jarduera fisikoa instrumentu bezala erabiltzen dutenez, gorputza arimarekin bat eginez, satori egoerara iristeko bidea da (munduarekin bat egiteko), idazle alemaniarrek deskribatzen duenez.

Liburuak irakasleak pedagogo gisa duen lanez ere hitz egiten du, nola ikasleari lehenengo saiakeretan noraezean galtzen utzi behar zaion, laguntza eskaini aurretik, eta, aldi berean, hasieran zailtasunak ez dituenak gero eta zailagoak izango dituela azpimarratzen du.

Irakasle-ikasle harremanean sakontzen du Herri-gelek, irakasleak izandako bizipenen berri emanez eta hark irakaslearekin izandako elkarrizketa interesgarri bitartez. Argi geratzen da irakaslearen egin beharra ez dela ezagutza hutsera mugatzen. Biek daukate denbora, bai irakasleak eta baita ikasleak ere, ikas-kuntza prozesua modu egokian jarraitzeko.

Liburuari probetxu guztia ateratzeko eta mundu berri batean murgiltzeko, poliki irakurri beharko da, burua argi dagoen momentuetan, lerro artean irakurriz.

Liburuak transmititu nahi duenaren esentzia ondorengo esaldiarekin laburbildu daiteke: "logura dagoenean lo egin behar da, eta gosea dagoenean, jan".

Aitor Alberdi

Mondragón Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Cristóbal, Rafael (2007). *Fundamentos del Ser Humano. Una psicología para educadores*. Arrasate: Mondragón Unibertsitateko Zerbitzu Editoriala.

XX. mendean pedagogiaren oinarri izan diren psikologia-eskolek dihardute eztabaidan oraindik ere, eta une honetan komenigarria iruditu zaigu era sistematiko batean aurkeztea aurreko mendearen erdialdetik aurrera pedagogía publikoa oinarritzea ahalbidetu duten ikerketa empirikoak. Horrexegatik eman diogu honako izenburu bikoitza: "Fundamentos del Ser Humano: Una Psicología para educadores".

Hezitzaileentzako psikologia da batez ere, beste alor batzuk biltzen dituen alor bat lantzen duelako. Lehendabiziko kapituluetan, eta liburu osoan zehar, giza-kiaren oinarriak direla-eta eskola horiek egin dituzten ekarpen eta desbideraketen azterketa kritikoa egin du. Eta lehenengo izenburua "Fundamentos del ser humano" da, izan ere kapitulu horretan azaltzen denak empirikoki egiaztatutako ikerketak ditu oinarri, eta, beste alde batetik, oinarri izanik, horren gainean egintza pedagogikoa eratu daiteke, hain zuzen ere haurrak bere errealitatean eskatzen duenari erantzungo diona.

Hazitegik pedagogiaren esparru publikoari eskainiko

dizkion emaitzetatik lehendabizikoa da hau. Mondragón Unibertsitateko HEZlren (Hezkuntza Zientzien Institutua) barruko proiektu bat da Hazitegi, eta eskainiko dituen hurrengo lanak denboraren eta espazioaren antolaketari burukoak izango dira, betiere lan honetan oinarritutako pedagogia-esparruarekin bat etorrira.

Rafael Cristóbal
Mondragón Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Trechera, José Luis (2007). *La sabiduría de la tortuga*. Cordoba: Almuzara.

La sabiduría de la tortuga liburu goxoa da, irakurterraza eta atsegina. Dortokaren jakinduria agertu nahi du, hau da, *poliki, baina etenik gabe*. Gizakiak aurrez aurre ditu presa, zarata, azelerazioa, laneko, kontsumoko, edo aisiak eragindako alienazioa... horren guztiaren aurrean, liburuak kultura berri baten beharrez hitz egiten du, non toki nagusia gizakiak izango duen, eta, horren on-

dorioz, lana, kontsumoa eta aisia neurrikoak eta iraunkorrak izango diren; sosegua, lehentasunak ezartzea, norberaren buruarekin bat egitea, besteekin ere bai... horixe izango da kultura berria, izan ere "*inork ere ezin du benetan bere burua ezagutu, ez bada bestea ezagututa*"; besteekiko harremanean aurkitu eta ezagutzen dut bestea, eta aurkitu eta ezagutzen dut neure burua ere.


"*Lehen munduko izeneko kulturaren, geldia, motela izateak dorpea, baldarra, tuntuna edo ezdeusa izatea da, nonbait. Azkartasuna eta presa dira nagusi; denak behar du bere tokian uneoro. Igoailuaren zain hamabost segundoz zain egotea ere jasanezina da, eta abiadura handia nonahi bada ere, sutu egiten gara Interneteko orri bat azaltzen ez bada.*"

Lehenengo zatian, liburuak gaur egungo errealtatea aztertzen du, ikuspegi kritikoz, sentsibilizatu gaituzten: gizartea, balioak, denboraren (*time is money*), lanaren eta aisiaren kontzeptuak, presa nola gurtzen dugun, berehalakoaren kultura nola gauden, *zappingaren* kultura, *homo sapiens* izatetik *homo digitalis* izaterako bilakaera, edo, hobe esanda, gizaki berri baten sorrera: *homo sapiens inalanbricusa*.

Liburuaren bigarren zatian aztertzen du gizarte honek sortzen dituen ondorioak eta pertsona-motak, baina jarrera eraikitzaile batetik betiere; alderdi positiboak azpimarratzen ditu eta izan litezkeen irtenbideak ere proposatzen ditu: orkestra-gizakia, lanarekiko mendekotasuna dutenak, estresa, "burnout" edo erre-egotearen sindromea, nartzisismoa.

Liburuaren hirugarren zatian "*la calma es oro*" (la-saitasuna urrea da) du izenburu; zatirik eraikitzailearena eta sortzailearena da: kontua ez da bakarrik denbora kudeatzea edo norbera administratzeko printzipio batzuk ezartzea, baizik eta bizitzeko filosofia aldatzea, parametro zaharrak albo batera utzi eta beste batzuk eraikitzea: dortokaren jakinduria (*presarik gabe, baina etenik gabe*). Slow mugimendua, oso-osorik hartuta, gizarte gizatarra- go baten adierazle gisa, gizarte hurbilagoa, lasaiagoa, orekatuagoa; lehentasunak ezartzen ikasi eta iparra jarri; norberaren historiaren protagonista izatea; umorea izatea; denbora "galtzen" ikastea...

Juanjo Otaño
Mondragón Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Kaltzakorta, Mixel (2007).

Prosa komunikagarriago egiten. Zenbait proposamen (I). Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea

Liburu honetan proposamen batzuk egiten dira jakiteko zelan arindu edo saihestu euskararen karga.

Euskara, gaur egun, arlo askotara hedatu da, bizitzako eta laneko guztietara-edo, baita Kode zibilera ere. Hala ere, euskarak segitzen du inguruko edozein hizkuntza normalizatu baino nekagarriago izaten bai idazteko bai irakurtzeko. Penaz irakurtzen da, besteak beste, atzerakarga deritzonagatik, hau da, informazio gune baten aurrean alperrik erabiltzeagatik osagarri bat edo gehiago.

Informazio gunea izan daiteke aditza edo izena, eta liburu honetan atzerakargak izena osatzen du gehienetan. Idazleak atzerakarga hori saihesteko proposatzen du alperreko osagarri hori pasatzea informazio gunearen aurretik atzera.


Liburua ikuspegi didaktikoz dago egina. 13 unitatez dago osatuta, eta bakoitzak gai bat lantzen du, hiru atalez dagoela osatuta: teoria, adibide konponduak eta ariketak (unitateko 15). Azken unitatean aurreko unitate-etako ariketak jorratzen dira, baina denak nahasian (60 ariketa). Denetara 250 ariketatik gora aurkezten dira ebazteko, eta denen soluzioak eskaintzen dira liburu-

ren amaieran. Hona hemen zeintzuk gai jorratzen diren unitateetan:

1. -T(z)eko osagarria izen atzera
2. Perpaus konpletiboa aditz atzera
3. Erdarazko partikula kausal batzuk
4. Gerundio mota bat
5. -Ko atzizkia sintagma batzuetan
6. -Ko atzizkia posposizio batzuetan
7. Erlatibo mota bat izen ostera
8. Erlatiboa zehar-galdera bihurtu
9. Erlatiboa erakusle atzera
10. Erlatiboa izen propio atzera
11. Aposizio mota bat atzera
12. Galdegaia aditz ostera ere
13. Ariketak nahasian

Liburua gomendagarria da edonorentzat, baina batez ere pentsatuta dago eskola- eta euskaltegi-irakasleentzat.

Mixel Kaltzakorta
Mondragón Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea



Azkarraga, Joseba (2007). *Nor bere patrioi:*

Arrasateko kooperatibistak aro globalaren aurrean. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Arrasateko kooperatibistengan bizitza gobernatzeko bezeko molde baten zertzeladak aurki daitezke. Ethos bat, nolabait. Euskal esperientzia kooperatiboa ez baita soilik errealitate ekonomiko bat, amets batekin konektaturiko esperientzia ere bada: enpresa eraldatzea gizartea aldatzeko; herritarrek enpresa (auto)governatzea; nor bere patrioi izatea, efikaziari zentzua atxikiz eta zentzuei efikazia (osagai sinboliko eta kulturalen potentziaren adibide da, hein handi batean). Arrasateko kooperatibistek zentzu-komunitatea osatu dute, nolabait.

Munduan garrantzitsuenetakoa den esperientzia kooperatibo honek bi alderdi josi nahi izan ditu: bizitzaren alderdi materiala (eta honi dagokion arrazionaltasun instrumentala, eraginkortasuna helburu duena) eta existentziaren dimentsio sinbolikoa (eta honi dagokion balore-arrazionaltasuna: giza ekintzari zentzua ematen dio, azken zergatiaz eta zertarakoez hornitzen du). Hortaz, kooperatibek bere egiten dute modernitatearen bezeko tentsioa Max Weberrek zioenari jarriki, honen us-tez modernitatea bi indar horien arteko tentsioa baita.

Azken urteotan Arrasateko kooperatibak asko hazi

dira (negozio-bolumenean zein langile kopuruan), eta aldaketak gertatu dira kooperatibismoaren egitura objektiboetan zein subjektiboetan. Eraldaketok, zelan ez, zerikusi zuzena dute aro berriari erantzuteko premiarekin: egungo ekonomia globalizatua eta posmodernitatea.

Ikerkuntza honek Arrasateko kooperatibismoaren arkitektura kultural-identitarioan gertaturiko eraldaketa historikoak ditu aztergai, kooperatibisten subjektibotasunean eta kontzientzian, alegia. Eta atze-oihalean, Modernitateari buruzko gogoeta: arrazoi sinbolikoak dituen zailtasunak arrazoi instrumentalaren desfile oldarkorraren aurrean (bizitzaren munduaren kolonizazio hazkorra, Habermasen esanetan).

Kooperatibisten amets hura zertan den ikusi, ikerkuntzak diagnostikatu duen 'zentzu-krisia' zergatik gertatzen ari den aztertu, eta etorkizunerako zentzu eta norabide posibleak proposatu nahi izan ditugu.

Joseba Azkarraga
Mondragón Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Esan dute

“Nadie puede conocerse verdaderamente a sí mismo, sino a través del conocimiento y reconocimiento del otro. Cuando alguien se aísla, se encierra en sí mismo y rechaza a los demás, pasa a tener como único reflejo su propia figura, y tal situación es destructiva y mortal.

J.L., Trechera (2007).
La sabiduría de la tortuga: sin prisa pero sin pausa: el tiempo es tuyo: cambiar el reloj por la brújula para tener el norte claro (126. or).
Córdoba: Almuzara.

“Lo primero que yo tendría que saber para hablar ante ustedes, es qué los inquieta, cuáles son las interrogantes más grandes que se plantean y en qué consisten sus dificultades. Si no sé eso, no puedo dirigirme hacia el centro de su atención y no puedo satisfacer lo que más ustedes exigirán de mí, que es precisamente eso, que aclara y orienta a los estudiantes en sus problemas.

Che Guevara, E. (1979).
Escritos y Discursos (156. or).
La Habana: Editorial Ciencias Sociales.

“[...] como he visto que no puedo cambiar el mundo, digo: “bueno, por lo menos intentaré cambiar a mis alumnos para que sean más críticos y sean ellos los que puedan hacerlo en el futuro [...]”.

(2007). Entrevista a Rafael Hocés.
Cuadernos de Pedagogía 372, 49. or.

“Kanpo zorraren gaia hezkuntza sozio-afektiboaren bitartez lantzen dugu, besteen lekuan jarriz, geure buruak sistema honetaz baliatzen den herrialde aberats bateko hiritar gisa onartzuz, hainbat eduki eta kontzeptu jorratuz edota balioak landuz.

Hikhasi (2007).
Alboan-eko Miguel Gonzalezaren ekarpenak.
Hikhasi 121, 26. or.

“Los umbrales del siglo XXI nos han sorprendido con la consolidación del libro-álbum como un género novedoso, polifónico y multimedial en el que la palabra e imagen se combinan para construir un discurso nuevo que nace de la interacción de dos lenguajes y que resulta mucho más innovador y atrevido que el tradicionalmente se entendió como infantil.

Tabernero, R. (2007).
Breviario de Literatura Infantil. Leer mirando desde Aragón.
Madrid: AEALIJ.

“Uno de los pocos ámbitos profesionales que aún quedan en el aislamiento y la falta de supervisión es el educativo.

Malpica, F. (2007).
La soledad en la cultura docente y sus consecuencias para la calidad pedagógica.
Aula 165, 66. or.

“Hoy en día nos vemos inundados por más imágenes de sufrimiento que ninguna generación anterior. [...] La gente que niega el sufrimiento de la vida y mete la cabeza, como el avestruz, “es como un falso profeta”. A menos que permitamos que el dolor entre por todas partes e invada nuestra conciencia, no podemos empezar nunca nuestra búsqueda espiritual.

Armstrong, K. (2007).
La gran transformación (534. or.).
Barcelona: Paidós.

“Más importante que el conocimiento de los temas académicos específicos, es promover capacidades clave para el desarrollo personal y profesional: confianza, perseverancia, atención, trabajo en equipo, sentido común, resolución de problemas, pensamiento crítico y capacidad de asombro.

Córdova, J.L.; Feregrino V.M.; Reza, C.;
Ortiz, L. eta Dosal, A. (2007).
La importancia de las preguntas.
Alambique 54, 25. or.

“Metodología colaborativa eta parte-hartzaileak dira ikasleen ustez ikasteko bide egokienak.

J. I. Marko (2007).
Portafolioa eta lan-ekipoak. Talde dinamika ikasgaiaren burututako esperientziaren azalpena.
Tantak 37, 76. or.

“La propuesta para el educador ante una situación de conflicto es entrar en el sentimiento real que una situación de conflicto nos produce y preguntar el sentimiento de la otra persona. Una propuesta de sentido común pero eficaz.

Munné, M. eta Mac-Crag, P. (2006).
Los 10 principios de la cultura de la mediación (123. or.).
Barcelona: Graó.

“Las nuevas teorías acerca de la constitución y elaboración del pensamiento científico, y las teorías críticas de la educación han realizado una excelente labor demostrando que no existen teorías ni metodologías válidas más allá de un sistema de relaciones económicas que define los criterios últimos de su utilidad. No existe neutralidad científica, y en el caso de la Psicología siempre existirá la pregunta de a quién sirve una teoría u otra. Son las dimensiones ocultas de oda teoría psicológica, de su aparición, auge o decadencia, sea epistemológica, sociológica, axiológica o ideológica.

Corral, R. (2007).
Una ciencia de la humanización. Contribución al debate. ¿Qué teorías necesitamos en educación?
Cultura y educación 19, 230. or.

“Los varones cobran de media en España un 43% más que las mujeres (19.314 E frente a 13.497). Y la diferencia va en aumento. El año pasado la estadística Mercado de trabajo y pensiones de la agencia tributaria calculaba que la brecha era de un 30%. El organismo no especifica si la diferencia se da cuando ambos realizan la misma tarea, pero lo que deja bien claro es que ellas acceden a trabajos en peores condiciones que ellos (EP 8, 40).

“ La colaboración del profesorado en la misma aula (co-teaching) no sólo mejora la atención a las necesidades de los estudiantes, sino que exige un acuerdo entre los maestros sobre la acción docente que deben desarrollar. [...] La colaboración dentro del aula conlleva a mejorar también el trabajo en común fuera del aula, que se hace necesario.

Berruelo, P. P. (2006). Educación inclusiva en las escuelas canadienses. Una mirada desde la perspectiva española. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado* 20, 199. or.

“ Nuestro cuerpo no puede digerir bien los alimentos cuando estamos enfadados, cansados o comemos con prisa. [...] Come hasta que tu estómago esté medio lleno, bebe hasta que tu sed esté medio apagada, y seguramente vivirás una larga vida.

A. J. Jackson (1997). *Los secretos de una salud perfecta* (81. or). Barcelona: Plaza & Janes.

“ Llenar es la obsesión. Por eso los políticos más solicitados tienen a mano a unos cuantos negros para ir atendiendo a la demanda. A veces, igual que los periodistas, ni siquiera se preocupan del contenido. [...] Si un día el laborioso y callado ejército de negros realmente existente se declarara en huelga, quedaría mucho, pero mucho papel en blanco.

Jaume Boix (2007). Dos veces negro. Cómo es el trabajo de quien escribe los discursos de un político. *El Ciervo* 680, 31. or.

“ Ha llegado la hora de cambiar los criterios a partir de los cuales se juzga la realidad africana. El “fracaso” de África ha de interpretarse como el fracaso de Occidente, que se lo impone todo a este continente desde hace siglos.

(2007). África en la escuela. Otra mirada. *Cuadernos de Pedagogía* 373, 51. or.

“ No nos podemos contentar con dar de beber a quienes ya tienen sed. También hay que dar sed a quienes no quieren beber. Hay que provocar en los alumnos el deseo de aprender y de formularse preguntas. Y hacerlo codo con codo, acompañándolos a lo largo de toda la escolaridad y ayudándolos a encontrar tiempos de reflexión y concentración en una época en la que están “sobre informados” y “sobreexcitados”.

(2007). Entrevista a Philippe Meirieu. *Cuadernos de Pedagogía* 373, 45. or.

“ No es posible hacer educación desde el cinismo: nadie puede enseñar, de hecho, si no cree que merece la pena enseñar lo que tiene que enseñar, que lo que tiene que enseñar tiene un valor para sus alumnos. [...] El trabajo educativo implica siempre un horizonte ético, implica siempre la movilización de un conocimiento prudente para una vida decente.

Antonio Nóvoa (2007). El profesor, hoy. La persona, la coparticipación y la prudencia. *Cuadernos de Pedagogía* 374, 23. or.

“ Gizon-emakumeak beren bidearen jabe izan daitezten, barruan musika behar dute, musika berezi bat. Musika bakarra diruarena eta erosotasun mugagabeekin bizitzeko nahiarena bada, nekez eraldatuko ditugu gizarte-egiturak.

Alfonso Gorroñoitiak esana eta hemen jasoa: Azkarraga, J. (2007). Zentzuz lan egin, zentzuz bizi. Arrasateko kooperatibiston esperientziak. *Hemen* 16, 84 or.

“ Ba ote dago gaur kooperatibiston artean musika konpartiturik? [...] Ikusi dugu badugula haria eta jostorratza zentzu konpartituagoa, adostuagoa ehuntzeko; zentzuz (esanahiez eta norabidez) lan egin eta bizi aldera.

Azkarraga, J. (2007). Zentzuz lan egin, zentzuz bizi. Arrasateko kooperatibiston esperientziak. *Hemen* 16, 94 or.

“ Sus libros hablan de las cosas y problemas cotidianos, en los que afloran los sentimientos, la alegría y la tristeza; y nos invitan a cuestionar y desmitificar ideas establecidas en torno a la familia y la sociedad.

Polanco, J.L. (2007). Como un pájaro asustado. *Peonza* 78, 63. or.

“ Caperucita Roja es, con diferencia, el relato que mejor define la búsqueda de la identidad sexual y refleja los peligros que tal descubrimiento acarrea.

Álvarez, B. (2007). Caperucita Roja: la búsqueda de la identidad. *CLIJ* 204, 24. or.

“ ¿Que pienso de la lectura en voz alta? Sin duda se trata de una actividad comunicativa, interesante, provechosa. Un buen lector puede hacer reír o llorar a su audiencia, que vivirá la lectura con intensidad y emoción. Pero no todas las prácticas lectoras que hemos heredado son provechosas.

Cassany, D. (2007). Luces y sombras de la lectura en voz alta. *Peonza* 82, 31. or.

“ Acercar a los niños a los buenos textos es también un modo de fortalecer sus defensas y cuidar de su futuro. Es un derecho de ellos y un deber nuestro. Para el bien de todos y la felicidad general de la gente.

Machado A.M. (2007). Derecho de ellos y deber nuestro. *CLIJ* 210, 57. or.

“ Tres tristezas me diluyen en la nada: familia, amistades y la impotencia de crear mundos perfectos en un mundo doliente. Tres momentos anclan mi vida a mi destino y trazan el surco de mi pasado: ahora, ahora, ahora. Tres poemas quisiera borrar de mi memoria: el canto a la violencia, el canto al odio y el canto a la envidia.

Juan Nieto Marín (2007). Juan K. Igerabide en persona. *Lazarillo* 18, 75 orr.



Martin Berecibar (2007)

Heziketa fisikoa (II): Eskola-kirola

62. zenbakian esan genuenez, Jakingarriak bigarren alea eskaintzen dio Heziketa Fisikoari, izan ere garrantzi handiko gaia da.

Ale hartan eskolan eta hezkuntza fisikoaren curriculumean murgildu ginen; oraingo honetan eskolaren espazioa zabaldu eta gorputzaren garapena eta kirola lantzen diren beste gune batzuei entzuten saiatu gara.

Hezkuntza osoa eta haur eta gazteen garapen integrala ez dago eskolaren eskuetan soilik, eta pentsatzen dugu egungo hezteko ardura, gero eta gehiago dela eragile sozial guztien kontua.

Hainbat urte pasatu dira kirol-eskolak martxan jarri zirenetik: haur eta gazte askok bizi izan dute esperientzia, eta, haiei esker, gazteek aukera ederrak izan dituzte arlo pertsonala eta soziala aberasteko.

Baina aisialdiko hainbat ekintza, kirola barne, aldaketa sakonak jasaten ari dira azken urteotan, eta mahai gai-

nean hainbat galdera eta eztabaida dautza: nola planteatu haur eta gazteen hezkuntza integrala, nola aisialdia edo haien denbora librekoa? zertarako? Eskola-kirolak askatasun eskolak dira edo haurrak gordetzeko eskolak? Eskola-kirolak zein harreman mota izan behar du eskolarekin? Jolasa non ari da gelditzen?

Jakingarriak aldizkariak lau aditu gonbidatu ditu ale honetara, eta iritziak eskatu die: segur aski, haien esperientziak, gogoetak eta zalantzak lagungarriak izango dira arlo honetan diharduten profesionalentzat, eta bai gurasoentzat ere.

Beraz, hor duzu, irakurle, monografiko hauen bigarren atala, Heziketa Fisikoaren gainean dagoen debate edota gogoetari argitasun eta aberastasun pittin bat eskaini nahian.

Nerea Alzola Maiztegi

Eskola-kirola: gogoeta batzuk

Izaskun Uribesalgo

Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslea

EAEn eskola kirolak bi hamarkada bete behar dituen garai hauetan, badago esaterik lan handia egin duela, bai eta egiten ari dela ere. Bi hamarkadek ematen dute balorazio eta gogoeta bat egiteko nahikoa aukera, eta are gehiago horren dinamikoa den kirolaren sektorean.

EAEn **eskola kirola** kontzeptua oso modu zabalean ulertzen da, legeak derrigorrezko eskolatzeko aldiaren ikasleak egindako **kirol jarduera antolatu** oro definitzen du eskola kirola moduan, hau da, 0-16 urte bitarteko haurrek egindako kirola dela esaten du, bere antolaketan parte hartzen duten egiturak eta eragileak kontuan izan gabe: legezkatutako eskola kiroleko programa, eskolako heziketa fisikoan ematen den kirola, kirol eskolak, fitness zentro eta gimnasioetan ematen diren kirolak, gurasoek antolatzen dituzten kirol lehiaketak, kirol elkarteetan ematen den kirola... definizio horren barruan sartuko lirateke.

Ez da kontzeptu handiegia, zabalegia? Ez ditu esparru bakoitzak bere testuinguru eta helburuak? Mundu berdin bat hizkuntza ezberdinekin? Hizkuntza ezberdinak mundu ezberdinetan? Zer da kirola? Zer da kirol hezitzailea, zer eskola kirola, zer heziketa fisikoa, zer jolasa? Zer kirol osasuntsua? Zer ...?

Pil-pilean ditugun eztabaidak dira.

Goazen esparru bakoitza labur aztertzeraz; denak euren artean erlazionatzen badira ere, bakoitzak bere ezaugarriak, helburuak, partehartzaileak eta bere testuinguru eta kontzeptualizazioa du.

Kirola bi esparrutan ikusten ohituak gaude, kirola heziketa fisikoko saioetan sartuta unitate didaktikoetan eta kirola, legezkatutako eskola kiroleko programetan. Eduki berdina bi esparrutan.

Eskolako heziketa fisikoaren historiari begirada bat egiten badiogu, kirolak bere bultzatzaileak eta bere suntsitzaileak izan ditu; XX. mendearen hasieran batzuek ez zuten kirola elementu hezitzaile gisa ikusten, eta eskolako balioen aurkako hotsak ere entzuten ziren, kirol jokoak lehiakorregiak zirelakoan.

Azken bi hamarkadetan kirola presente egon da heziketa fisiko ikasgaiaren kirolak duen potentzialtasun pedagogikoagatik (ez dugu inoiz ahaztu behar kirola, berez, ez dela hezitzailea, baizik eta saioa, ekintza ematen duenak egiten duela hezitzaile). Hezitzaile horrek haurren behar eta ezaugarriak zein diren jakingo du, bere gogo eta mugak eta kirolak bere barnean duen lehiakortasuna hezitzaile bihurtu beharko du.

Irakasleak kirola helburuak lortzeko erabiliko du, eta horrela kirol eduki hori batzuetan egokitu, aldatu eta mugatu egingo du, bestetan kirol instituzional bezala

erabiliko du. Heziketa fisikoko irakasleak kirola printzipio psikopedagogikoetan oinarrituko du, haurra estimulatu behar du eta oinarriak eman behar dizkio geroa begirako apendizaiak jasotzeko, bere burua ezagutzeko, balore positiboak eskuratzeko eta dagozkion etapako hezkuntza helburu orokorrak lortzeko.

Heziketa fisikoaren curriculum berrian ere kirolak esparru garrantzitsua du.

Garatu dezagun KALITATEZKO **heziketa fisiko** bat gure eskolatan.

Ibaia mugitua dator azken aldiaren ikasgai honen inguruan ordu murrizketa, irakasleen profila, euskal curriculum, jarduera fisikoaren pribatizazioa... argi dago eragileek baretu dezaketela mugitua datorren ibaia, Hezkuntza Sailak, ikastetxeek, familiek, irakasle espezialistek, denon arteko erroka izango da Jakingarriak 62. zenbakian, Fernando Sánchez Bañuelosek aipatzen zuena lortzea *"ikasgaiaren garapenean eragina duten baldintzetan hobekuntzak egitea eta ikasgaia garatzeko modua bera hobetzea"*.

Ez dezagun ahaztu derrigorrezko ikasgaia dela eta bere izaeratik nola erantzuten dion ikaslearen hezkuntza osoari. Goazen kalitatezko eta merezi duen estatusa lortzera betiere ereduarekin, ikerketarekin eta irakaslearen prestakuntza gaur eguneratu batekin.

Kirolak heziketa fisikoan bere esparru propioa du, eta ikaslearen hezkuntza osoa garatzera bideratuta dago.

Heziketa fisikoa eta kirolari buruz aipamena egin eta gero **Legezkatutako eskola kirolak** hitz egingo dugu. Helburu hezitzaileak ere badituen kirol esparrua baina errealitate oso ezberdina duena.

Eskola kirola haurren heziketa prozesua osatzera dator, kirolari bakoitzaren beharrak asetzeko asmoz halako edo bestelako programak diseinatu.

1989.urtean Gipuzkoako Foru Aldundiak E1 deituriko eskola kiroleko programa garatu zuen. Bertan **Ikastetxeak** inplikatu nahi zituen eskola kiroleko programa hezitzaile bat garatu zezaten; kirol *aniztasuna*, *kirol lehiakorra* bakarrik ez izatea eta *kirola denontzat* ziren programaren oinarriak. Kirol praktika guztiongan hedatzea zuen helburu 8 eta 16 urteko gaztetxoaren artean. Neskak, mutilak, kirolari trebeak ez horren trebeak, denak mugimenduan jarri nahi zituen.

Ez dugu inoiz ahaztu behar kirola, berez, ez dela hezitzailea, baizik eta saioa, ekintza ematen duenak egiten duela hezitzaile

Bai Bizkaian eta bai Araban ere eskola kiroleko programak garatu ziren, baina ikastetxeen egituretan baino kirol elkartearen egiturapean garatu ziren.

Eskola kirola, hau da eskola adinean hasi behar den kirol praktikaren hastapena, haurren heziketa osoaren osagarri moduan, balore positiboen transmisio moduan eta etorkizuneko kirol praktikaren oinarri bezala ulertzen da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak dekretu bidez plazaratzen duen Eskola Kiroleko programak hiru ibilbide definitzen ditu haurren beharrak asetzeko:

Parte hartzeko ibilbidea non bere helburu nagusia ikasleek kirola eta jarduera fisikoa egitea, kirol modalitate ezberdinak ezagutzeko, kirola egiten ohitzea eta bizimodu osasuntsua izatea den. Hemen sartzen dira kirol ezberdinak ikasteko ikastaroak (xakea, surfa, piraguismoa, mendizaleatasuna, esgrima ...) eta hastapeneko kirol lehiaketak (areto futbola, saskibaloia, esku-baloia, atletismoa, herri kirolak, ...).

Bigarren ibilbidea **errendimenduan hasteko ibilbidea** litzateke, non kirolean errendimendua eta kirol helburuak lortzera bideratutako jarduna sartuko liratekeen, eta hirugarren ibilbidea **talentudunak edo etorkizuneko kirolariak** identifikatzeko ibilbidea non kirolerako jarrera eta gaitasunagatik etorkizuneko kirolaritzat hartuak izateko eskakizunak betetzen dituzten ikasleak antzeman, hautatu eta garatzea duen helburu.

Horretaz gain, Kirolaren Euskal planak (2003-2007) erroka argiak zituen eskola kirolaren esparrurako, hala nola, eskola kiroleko partehartzaile kopurua %60ra iristea, generoari erreparatu nesken partehartzea %45era iristea, heziketa fisikoaren presentzia eskolatan asteko 3 orduz iristea (hau paradoxa hau!!!) eta eskola kiroleko formatzaileen %100ek gaztetxoekin lan



Leintz Eskola-kirola (2007)

egiteko kirol titulazio tekniko bat izatea.

2008an gaude, eta argi esan dezakegu erronka horiek ez direla guztiz lortu.

Legeztatutako eskola kirol programak legeztatu zuen elkarrekin joan diren gaur egungo eskola eta kirolaren arteko lotura. Foru Aldundiek, hainbat programaren diseinuaren bidez, diru laguntzen bidez eskola kirolaren sarea sortzen lagundu zuen; makina bat neska mutiko pasa dira eskola kiroletik azken bi hamarkada hauetan (lehen hezkuntzako ikasleagoren %50a), kirol koordinatzaile figura sortu da, eskola kirola antolatze eta kudeatzeko udal egitura bereziak sortu dira, hainbat monitore mota ibili dira saioak ematen, kirolak bere leku egituratua izan du haurra eta gaztearen inguruan, administrazioa guztiz interbentzionista izan bada ere proiektu ezberdinak martxan jartzeko ezinbestekoa eta baliagarria izan da, gaur egun erkidego guztian eskaintzen da eta Kirolaren Euskal planak jasotzen duen moduan, eskola kirola kirol esparru garrantzitsu batean bilakatu da Euskal Kirol Sistema egituratu bat lortzeko.

Eskola kirolak gauza on asko lortu ditu: esparru egituratu bat sortu izana kirolaren inguruan, kontzientziazte lan bat egitea agente ezberdinak inplikaturik eta neska mutil eta gazte mordo bat mugimenduan eta martxan jartzea, larunbat goizetan kirol instalazioak eta hondartzak kirolari gaztetxo betetzea eta kirolaren inguruan aisialdi ekintza antolatu bat sortzea.

Balorazioetara pasatuz, Eskola kiroleko dekretuak (160/1990 eta 337/1994) aurrerapauso garrantzitsua izan dira gaztetxo kirol esparrua eta kirol hastapena diseinatu eta antolatzeke. Foru Aldundiek ikuspegi ona izan zuten baina EAEko kirol sektorea ez zegoen garrantzitsua, ez zegoen heldua eta ez zegoen **profesionalizatu** guztiari behar bezala erantzuteke. EAEko gizarte eta kirol egitura ez zegoen prestatua eskola kirola lan esparru duina bihurtzeko. Erronka hau ere lortzeke daukagu.

Hurrengo gogoeta eskolako heziketa fisikoaren eta eskola kiroleko programen **koordinazioa eta loturari** buruzkoa izango da; zaila da ulertzea ordutegi barruan prestakuntza bat eta ordutegitik kanpo beste prestakuntza bat ematea; heziketa fisikoaren eta eskola kirolaren arteko koordinazioa lortzera bideratutako estrategiak definitu eta martxan jarri beharko lirateke. Zailtasuna, esparru bakoitzak eskatzen den perfil profe-

Heziketa fisikoko irakasleak kirola printzipio psikopedagogikoetan oinarrituko du, haurra estimulatu behar du eta oinarriak eman behar dizkio gerora begirako aprendizaiak jasotzeko, bere burua ezagutzeko, balore positiboak eskuratzeko eta dagozkion etapako hezkuntza helburu orokorrak lortzeko

sionalean dago, denok argi daukagu kirol sektorean lan esparruak ez daudela ondo definituta eta lan mundua oso korapilatsua dela. Zuzenean haurrekin kontaktuan dauden kirol monitore edo begiraleak ahal dutena egiten dute, baina ez da behar den kalitatea bermatzen. Esparru garrantzitsua bada, lan mundu hau profesionalizatzeko aldera egin beharko dugu. Eskola kiroleko monitoreen edo **irakasleen** hobekuntzan dago eskola kirolak duen erronkarik nabarmena.

Eskola kirolari egiten zaion kritika (Blazquez, 1995) nabarmena eskola kirola, kirol federatuaren ispilu izatea da. Lehiaketan oinarritzen den eskola kirola ikusten dela, esparru federatuko erritua berdina jarraitzen duela, **kirol federatua** "miniaturan" dela ere esan daiteke. Bere hitzetan, kirola egiteko modu hau oso selektiboa da, gaitasun gehien daukatenentzat besterik ez da aproposa, generoaren kirol praktikaren segregazioa gartzen du, kirolaren ludikotasun eta errekreazio izaera gutxitzen du eta goi mailako kirolean ematen diren balio, jarrera eta ekintza sumagarriak gartzen ditu.

Eskola kirol horretara ez dira ikasle guztiak atxikitzen, eta gaitasun gutxiago dituzten ikasleak oso agerian gelditzen dira.

Lehiaketa ez da txarra ondo bideratua badago, baina ezin da ahaztu eskola kirola egiteko beste aukera batzuk ere zabaldu behar direla ikasleen gaitasun kogni-

Eskoletan ematen den kirola ekintza hezitzaileago batean bihurtu dezagun horretarako jantziak egongo diren profesionalak heziz non ikasle guztien kirol gogo eta nahiak aseko dituzten

tibo, motore, giza harreman, eta mundu afektiboa garatuko dutenak; horrela eragingo du kirolak ikaslearen prestakuntza eta garapen pertsonalean.

Durand-ek dioenez (1988) eskola kiroleko metodologia eta antolaketari erreparatu gero, argi ikusten da lehiaketa esparruko balio, teknika eta taktikaren entrenamendu metodoak, eta planteamenduak esparru **hezitzaileara transferitu** direla eta hori ez dela egokia, transferentzia horrek ez duela balio kirol hezitzailearen kontzeptupean. Argi dago denontzat pentsaturiko beste irakaskuntza metodologi batzuk eta eskola kirola ulertzeko beste modu batzuk daudela edo aurkitu behar direla.

Inkesta guztiek esaten duten bezala eskola amaitzen dutenean askok alde batera **uzten** dute kirol praktika hori ekidin beharra dago. Derrigorrezko bigarren hezkuntzan sartzeararekin bat partaidetzak beherakada jasaten du batez ere nesketan eta benetan kirolarekiko benetako atxikimendua lortu duenak besterik ez du jarraitzen.

Gazte bakoitzak eskola kirolaren barruan bere ibilbidea aurkitu behar du bere gogo eta izaerarekin bat datorrena; batzuek lehiaketa kutsuko kirola hautatuko dute, besteek parte-hartzean oinarrituriko eskola kirola. Zailtasuna batez ere kirol hastapena ulertzeko modu bakar bat ikusi eta ikasi dugulako da.

Askotan aipatu izan da legeztatutako Eskola kirolak bultzatzen duen Kirol aniztasunak ez duela **kirol maila** ona ziurtatzen; beste batzuek aldiz, kirol aniztasunean lan ona eginda kirol maila etortzen dela diote. Betikoz eztabaida honen erantzuna ekintza beraren helburuak ematen digu: zer lortu nahi dugu?, zein da eskola kirolaren helburua?, EAEko haur eta gazte gehienek

beraien beharretara egokituriko kirol praktika bat egiteko aukera izatea edo talentu batzuk ateratzea?

Askok uste dute aniztasuna dela bidea, ez aspertzeko, kirol ezberdinak ezagutzeko, kirol bakoitzarekin gartzaren diren abilezia espezifikoak eskuratzeko, estimulu pertzeptibo motore gehiago izateko, aurrerantzean kirol ezberdinetako harrobiak izateko; beste batzuek, aldiz, ez dute teoria horretan sinisten, eta haur baten kirol motibazioa mantentzeko eta bere kirol ibilbidea ziurtatzeko kirol hori menperatzea eta hobekuntza ezinbestekoak direla diote.

Gogoeta hauetan ezin **generoaren** gaia ahantzi. Eskola kiroleko kirol lehiaketetan ematen diren kirolak gizonetzkoen erudirik etorriak dira; kirol horiekin ez dira neska asko kirolera atxikitzen eta nesken partaidetza datuak eskola kirolean argiak dira (%35); geografikoki gertu dagoen kirol errealitatera egokitu behar da eskola kiroleko programa baina horrek aukera utzi beharko luke gaur egun horren anitzak diren beste kirol batzuk programa horretan sartzeko. Kirolaren ludikotasunak beti izan beharko luke lekua eskola kiroleko programa ezberdinetan.

Ogerleko batek beti ditu aurpegi bi, eskola kirolak ere bai; gauza asko lortu ditu baina gauza asko ditu oraindik lortzeko.

Eskoletan ematen den kirola ekintza hezitzaileago batean bihurtu dezagun horretarako jantziak egongo diren profesionalak heziz non ikasle guztien kirol gogo eta nahiak aseko dituzten; kirol lehiaketa gogoko dutenak, lehiaketarik nahi ez dutenak, mugimenduetan zailtasunak dituztenak, eta talentua soberan dutenak. Bakoitzari berea emanez denak ezberdinak garelako eta **kirola ulertzeko bide ezberdinak daudela sinistuz**.

Kirolaren ludikotasunak beti izan beharko luke lekua eskola kiroleko programa ezberdinetan



Eskola-kirola bidegurutzean

Dorleta Ugalde Usandizaga

Eusko Jaurlaritzako kirol teknikaria

Kirola, garaikidea den gizarte gertakaria den heinean aldaketa sakonak jasaten ari da azken urteotan. Zentzu honetan kirolaren ondorioz gizartean sortzen ari diren ekintza eta inpaktu politikoak, ekonomikoak eta sozialak harik eta aldaketa sakonagoak jasaten ari dira.

Eskola-kirola ez dago gizarte aldaketa prozesu honetatik at

Kirola kudeatzen duten erakunde publikoen kezkatzen izan da beti eskola-kirola, oraindik orain Euskal Autonomia Erkidegoa estatu osoan eskola-kirola arautua duen erkidego bakarra da eta. Eskola-kirola, lehen aldiz Soin-kultura eta Kirolari buruzko 1988ko Euskadiko lehen kirol legean aipatu zen eta ondorioz, oraindik indarrean jarraitzen duen 1990eko eskola-kirolari buruzko dekretua argitaratu zen. Dekretu honek eta 1998 Euskadiko kirol legeak garbi ezarri zituen eskola-kirolak gure erkidegoan izan behar dituen ezaugarriak:

- Ikasleek nahitaezko eskolatzeko aldi irakastorduetatik kanpo egiten duen kirol jarduera antolatua.
- Ahal dela kirol anitz jasoko dituen, ikaslea bere borondate, gaitasun fisiko eta adinaren arabera kirola

lean aritu dadin eta geroago kirola egiten jarraitzea posible egingo duen prestakuntza jaso dezan.

- Ikasleei osotasuneko eskola heziketa osatzea izan behar du helburu, ikasleen nortasuna modu orekatuan garatu dadin eta gorputz eta osasun ezaugarri jakin batzuk lortu ditzan.
- Lehiaketa kirola ez da izango helburu bakarra.

Araudiak garbi ezartzen du Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela eskola-kirola bideratzea eta sustatzea eta lurralde historikoetako foru organoek urtero onartu eta aurrera eramango dituztela eskola-kirolari buruzko programak askatasun eremu zabal batez.

Askatasun honek kirol programak lurralde bakoitzeko ezaugarri eta beharretara modu aproposan egokitzea ahalbidetu duen arren, bestalde, urteen poderioz, eskola-kirolak hiru lurraldeetan garapen ezberdina izatea ekarri du ondorioz. Gida oinarriak berdinak izan arren, hiru lurraldeetan ekintza eta programa, egitura eta baimentze irizpide ezberdinak daude une honetan, ondorioz sortzen diren alderaketa desegokiak sortuz.

Bestalde eskola-kirolari buruz egin diren ikerketen arabera une honetan dagoen ahulezi nagusietako bat



Leintz Eskola-kirola (2007)

eskola kiroleko begiraleen trebakuntza eskasarena da. Salbuespenak salbuespen, eskola kirolean dauden begirale gehienak oso gazteak dira (kasu batzuetan adin txikikoak ere), gehienetan borondatez haur taldearen arduradun direnak. Beraiek jasotako kirol eta irakaskuntza ereduak errepikatzen dituzte, eta oso denbora gutxian egoten dira lan horretan; aldi baterako eta tenporaltasun handiko lana bihurtu delarik.

Ikastetxeen inplikazioa oso irregularra da. Ikastetxe pribatuak bere interes eta gogoen arabera ari dira lanean eta ikastetxe publikoetan guraso elkarteak egin dira arlo honen arduradun. Hezkuntza sailak zer esan handi du arlo honetan, baina ez du esku hartu nahi. Katalunian Kirol saila eta Hezkuntza sailaren artean egindako akordioaren modura, hemen ere elkarlana

egon behar luke bi sail hauen artean. Horrelako akordioek kalitatezko eskola-kirola ezartzeko bideak ireki ditu, hala nola, ikastetxeak bere ordutegiz kanpo irekiak egotea, begiraleen prestakuntza, eskola-kirola elkarrean sorrera, irakasleria profesionala ikastetxean egiten den eskola-kirolaren arduradun nagusia izatea (ordainduz eta orduak liberatuz), ikasle dinamizatzaile irudia sortzea eta azken finean eskola-kirola hezigarria izatea ahalbidetzen duten ekimenak bultzatuz.

Betidanik ezagutzen dugun kirola, ohizkoa, behehantz doa eta beste kirol modalitate eta partaidetza motak zabaltzen ari dira. Baina gaur egun eskola-kirola nagusiki kirol federatuaren ispilu izaten jarraitzen du. Lehiaketa programatan kirolei buruzko eskaintza handia eta aberatsa da baina helduen antzera emai-



tzaren arabera antolatuak dauden ekintzak dira: txapelketa berdina, joko sistema berdina.

Eskola kirolean parte hartzen duten haurrak, nagusiki, kirolaren bidez gozatu eta ondo pasa nahi dute eta ez dira errendimendua bilatzen ari. Baina eskola-kirolak ez ditu horien gogoak asebetetzen, eta egoera harik eta larriagoa bihurtzen da nesken artean, beraien partaidetza mutilena baino askoz ere baxuagoa bai da hiru lurralde historikoetan (partaideen %35a dira). Eskola-kirola uzten duten haurren kopurua altua da (%40 inguruk uzten du kirola DBHn) hauetatik gehienak neskak direlarik. Laburbilduz esan daiteke gaur egungo kezka nagusia haurrak kirolerako prestatzea dela eta ez ordea kirola haurrentzako planifikatzea.

Egoera honen jabe, Eusko Jaurlaritzak Kirolaren Euskal Plana 2003-2007ren barne eskola-kirolaren eredu

Eskola kirolean parte hartzen duten haurrak, nagusiki, kirolaren bidez gozatu eta ondo pasa nahi dute eta ez dira errendimendua bilatzen ari

berri bat aurkeztu zuen eta izapidetzen ari da eredu hau babesteko duen eskola-kirolaren dekretu berria.

Eredu berriaren erronka nagusia haurren bizitza aberastuko duen kirol ibilbidea ahalbidetzea da, edozein aukeratan, kalitatea bermatuz.

Kirol ibilbidea aberatsa ahalbidetzeko ezinbestekoa da...

- Eskola kiroleko dekretu berriak arautuko duen eskola-kirola Euskal Batzordea martxan jartzea. Batzorde honetan eskola kirolean parte hartzen duten agente ezberdinak egongo dira eta eskola kirolean kalitatea oinarri izango duen politika komun bat ezarritzea izango du helburu.
- Kirol ibilbide eta ekintza ezberdinak ezartzea maila, borondate eta gaitasun ezberdinen arabera, haur bakoitzak berea aukera dezan. Dekretu berriak hala ezartzen du.
- Kirol begiraleen prestakuntza bultzatzea. Dekretuak gutxienezko prestakuntza ezartzen du. Horrez

gain, eskola kirolean diharduten begiraleen trebetasunak hobetu aldera lanean ari gara.

- Betidanik tentuzkoak izan diren eskola kiroleko eta federazioetako harremanak indartzea, elkarkidetzatza hitzarmenen bitartez.
- Ikastetxeetan egitura iraunkorragoak ezartzea
- Eskola kiroleko egitura eta erakundeen arteko harremanak estutzea, elkarkidetzatza hitzarmenen bitartez
- Familien partaidetza positiboki baloratzea.

Ondorioz esan daiteke eskola-kirola, ongi bideratua bada, oso tresna baliagarria dela haurren hezkuntzan eragin fisiko, psikologiko eta sozial nabariak dituelako. Baina horretarako ezinbestekoa dela gizarte eragile eta erakunde ezberdinen arteko politika komuna, haur bakoitzaren beharrei erantzungo dion kalitatezko eskaintza bermatze aldera. Batez ere, orain, Hezkuntza sailaren dekretu berriaren curriculumeko Gorpuz Hezkuntza irakasgaiaren orduak murrizteko asmoa dago eta, 6 ordu gutxiago Derrigorrezko Lehen Hezkuntzan eta 3 ordu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.



Eskola-kirola

Iñaki Ortuzar Oyanguren

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Fakultatea. UPV-EHU

Eskolaz kanpoko jarduerak

Aresti arte, herrialde garatuetako hezkuntza sistemen helburua hezkuntza eskolatzea gizarte osora hedatzea zen. Aspaldi honetan gogoia haratago doa: heztekoko arduraren eragile sozial guztien kontua da, hezkuntza formala—ofizial edo akademikoa— eta bertako eskola ordutegi arautuak gainditu ditu, bai esparru informalen, bai ez-formalen bitartez.

Cuenca-k dioenez, curriculum-hezkuntza gizakiak bizitzan aritzeko premia izan diren ikasketen gutxieneko parte baizik ez da (1992); irakaskuntza hori, gainera, "ez da nahikoa, hala eskaini zaion kantitateagatik, nola bere egituraren baliozotasunarengatik ere" (Sicilia, 1998:41).

Eskolaumeak eskolaz kanpoko tartetan garaturiko jarduerak eskolazkoen gaineratik balioztatzen dituzte, borondatezko eta pertsonalizatuagotzat jotzen baitituzte

Formazio alorreko premia horiek ase izan dituzte, hein batez, aisialdiko heziketa-talde eta -elkarteez, egun gainbehera latzean doazela. Elizbarrutiko taldeek, scout izenekoez eta antzekoez beren heziketa-ideiak haur eta gaztetxoengan erein izan dituzte, zeregin horretan ziharduten borondate handiko monitoreen eskutik.

Hezkuntza ez-formalaren transzendentziari garrantzi handia aitortu izateak ondorioztatu du aisialdirako eta aisialdian baitako heziketa ikastetxeak geroz eta gehiago bereganatzea: ikastegi askotxok aisialdiko elkarteak daukate eta beste askok eskolaz kanpoko jarduerak, kirolezkoak, gehienbat.

Eskolaz kanpoko alor hori sustatzen ez duten ikastetxeek, izan ere, bertako ikasleei hainbat ikasketa atseginez egiteko aukera galarazten diete eta, ondorioz, aisialdia betetzeko formarik pasiboenei—areago, kaltegarrienei— atea zabaltzen dizkiete (Pereda, 2000).

Autore horrek berak dioenez, "eskolaz kanpoko jarduera ekarpen handia da ikaslea osoki formatuko bada eta ezinbesteko euskailua, berriz, Ikastetxe Hezkuntza Proiektuan proposaturiko helburuetara iristeko".

Antzeko tesiak defendatzen ditu Gimenez (2004): haurren hezkuntzan eragina faktore batek (eskolak)

baino gehiagok dutenez, ikaslearen curriculumari eskola ordutegi kanpoko ikasketak erantsi behar zaizkio. Eskolak bere hezkuntza espazio eta denbora zabaldu behar ditu, ikastegiz eta ordutegiz kanpo ere jardun behar du, eskola markoan garatu ezin diren jarduerak edo esperientzietan, batik bat.

Bestelako arrazoietan oin harturik, beste hainbat autore hezkuntza denbora horren aldeko dira. Eskolaz kanpoko jarduerak, borondatezkoak izatearren, gizakiak bere burua hezteko eta eskarmentu pertsonala egiteko aproposagoak dira: horien bitartez sustatzen da jarduteko, hautatzeko eta adierazteko aukera askea (Cuenca, 1992).

Eskolaumeak eskolaz kanpoko tartetan garaturiko jarduerak eskolazkoen gaineratik balioztatzen dituzte, borondatezko eta pertsonalizatuagotzat jotzen baitituzte:

horiei esker harreman berriak egin ditzakete eta bere interesen arabera araberakoagoak dira (Fraile, 1999).

Ikusten dugunez, eskolaz kanpoko aldi horri garrantzi handia aitortzen diogu denok. Hernández eta Velázquez-ek diotenez (1996) haurren formazio aldia etengabea da eta ez dago ordutegi jakin bati lotua.

Sicilia-k (1998:41), bere aldetik, izaera sozialeko kontsiderazio honetara garrantziak: "Eskolaz kanpoko jarduerari esker, eskola eta gizartearen elkarrengana hurbil daitezke, ikasgelako eta kaleko ikasketak elkarrekin konektatuz".

Adierazitakoa laburbiltzeko, Maiztegui eta Pereda-ren baieztapen honekin bat gatz (2000:36): "Lerro transbertsalen eta eskolaz kanpoko jardueren bitartez bizitzeko eta elkarrekin bizitzeko oinarriko balioak sustatzen dira, ikasgeletan sustatutakoen osagarri".



Pablo Berezibar eta Malen Balerdi (2007).

Giro itxiaren (ikasgela, gimnasioa, eskola esparrua...), denbora tarte jakin, finko, derrigorrezko, bizitzarako transferentzia urriko horren aurka, eskolaz kanpoko jarduerak aisiadilarekiko eta kale-bizitzako zuzeneko konexioa da

Ikusten dugunez, "aparteko" jarduerak horien helburua hezkuntza formala osatzea da. Tercedor-ek (1998:69), horren zergatia azaltzeko, lehen aldi pedagogikoa, curriculumekoa, bigarren aldi pedagogikoa —eskolaz kanpoko jardueretan— irekitako prozesuetan jarraitu, sendotu eta indartzen da eta horrek hirugarren aldian du eragina, bizitza pertsonalaren eta sozialaren errealitatean.

Bigarren hezkuntza aldi izeneko horren premia ziriturik, horren arduraduna nor den aipatu beharko.

Lehen hurrenkera batean, generikoki, ardurak hori ikastetxean topatzen dugu: eskolak, beteak beste, eskola ordutegiz kanpo bere espazioak zabaldu behar ditu, aisiadilako toki bihurtzeko, eskolaz kanpoko jardueren bultzatzaile gisa agertuz, guraso elkarteekin eta gertuko ingurune elkarteekin kolaboratuz (Arribas, 2000).

Bai LOGSE Legeak, baita bera garatzen duten Dekretuek ere, ardurak hori ikastetxean —zehazkiago, bertako irakasleetan— ezartzen dute. Estatu espainiar osoaz ari garela, bereziki esanguratsua izan da, adiera horretan, Eskolaz Kanpoko Jarduera Osagarrien Departamentua sortzea, hortxe aintzat jotzen baita zeregin hori eta, hortaz, irakasle batzuk izendatu behar dira, ikasgaia aurrera atera dezaten.

Marko horretan kokaturik, muga dezagun zeregina. Ponce de León-ek (1998:324) honela jaso du: "... LOGSE-k curriculumaren parte handi bat ikasleak eskolaz kanpo ematen duen denboran hezitzaile inplikatzeari eta bertan partaide-kide bihurtzeari es-



Leintz Eskola-kirola (2007)

kaini dio". Autoreak, era berean, berak eskolaz kanpoko ordutegian daukan erantzukizunaz gogoeta egin du:

"XXI. mendeko helduen hezitzaile garen aldetik, gure lana eskola ordutegira bakarrik ez mugatzeko beharra ikusten dugu; geuk ere osatzen dugun ingurunera ere ate-leihoak zabaldu behar ditugu, ikaslea horretarako formatu behar baitugu" (Ibid., 25).

Ideia orokorra, beraz, hau da: batetik, eskola tartea urritzat jotzea, bai —hezkuntza alorreko administrazioak agindutako— curriculum akademikoari dagokionez, baita —eskolaren eskuetan familiak eta gizarteak utzi duen— curriculum inplizituari dagokionez ere. Premisa hauetatik abiatuz gero, ohiz argudiatzen den arrazoia (eskolaz kanpoko jarduerak osagarriak direla, alegia) ondorioztatzen da.

Adierazitakoaz gainera, ordea, ez dugu baztertu behar hori, izaeraz, berezia eta bakarra dela: izan ere, haurrak bizi dezakeen eskarmenturik aberasgarri eta motibo eragileenetako bat baita (Larrarte, 1998), alor akademikoan bizi izaniko eskarmentuez bestelakoak izango baititu hemen.

Guk geuk, eskolaz kanpoko eta eskola-kirol denbora osagarri dela diotenekin bat ez gatzela aitortu behar dugu. Larrarterekin ados gaude, praktika horiek "izaera berezi eta bakarrekotzat" hartzean eta, goian adierazi dugunez, beren izaera dutela uste dugu, hots, eskola alorretik inola ere mendeko izan ordez, horretako kide direla.

Giro itxiaren (ikasgela, gimnasioa, eskola esparrua...), denbora tarte jakin, finko, derrigorrezko, bizitzarako transferentzia urriko horren aurka, eskolaz kanpoko jarduerak aisiadilarekiko eta kale-bizitzako zuzeneko

konexioa da. Borondatezkoa da, interes berberak dituzten taldeak sortzen dira, haurren astian bertan, ingurune irekian eta, seguruenik, bere problematik eta errealitate hurbilago dauden irakasleekin garatzen da. Ikastetxeak lortu nahi dituen hezkuntza ideiak, baliok erraz transmititzen dira eskola-kirolean hauxe baita haurren bizitza pertsonaleko parte bat, bere zailtasuna, bere denbora-pasa, lagunekin egotea... (Ortúzar, 1999:24).

Hernández eta Velázquezek, bere aldetik, eskolaz kanpoko jarduerak hiriko bizimodu postmoderno honen orekatzaile gisa ikusten dituzte:

"Eskolaz kanpoko jardueretan, hauek beren aisialdian txertatzeko motiboak bilatu behar dituzte ikasleek, eguneroko bizitzan ohiko eta probetxuzko zerbait bilakatuko den heinean. Bizimodu horretan sedentarisismoa, estres laborala eta isolamendu so-

Eskola-kirolaren heziketa zerrenda zabaldu egin daiteke, gure gizartean -inoiz, curriculum akademikoan behar adinako edo behar bezalako tratamendua ematen ez bazale ere- garrantzitsutzat jotzen diren hainbat gai erantsita

ziala norberaren eta gizartearen osasunarentzat geroz eta arrisku faktore larriagoak bihurtzen ari dira, eta horien eraginak jarduera fisikoak eta kirola ohiz eta tamainan praktikatuz alde edo moldez arindu daitezke, bai alderdi biologikotik bai psiko-sozialetik ere" (1996:155).

Egiari zor, ezin isil daiteke batzuek eta besteek —geu, tartean— eskolaz kanpoko jarduerari ematen dioten garrantzia. Honetara iritsita, beraz, kirolezko eskolaz kanpoko jardueri buruz arituko gara.

Eskola-adinean kirola egiteko arrazoiak

Aurreko epigrafean eskolaz kanpoko jardueren —tartean, jakina, kirolezkoen— egokitasuna zuriu dugu, akademiko hutsa ez den eskola-alderdi horren beraiazkotasuna bilatu nahian: eskola-kirola, izan ere, denetan gogokoena da.

"Garai denetan haur eta gaztetxoek joko eta kiroletan denbora asko eman izan dute eta hainbat kiroletan jardunez gozatu dute betidanik. Izan ere, haur askok aisialdian kirola egitea dute jarduera nahiena" (Cruz, 1997:149).

"Kirola da, udalerrri honetako sexu bietako haurrek gehien praktikatzen duten jarduera ez ezik, erakarriaren dutena orobat" (Monteagudo, 1996:140).

Kirola, osasunarentzat ezinbesteko jardueratzat jotzen bada, eskola alorrean orduan eta arreta handiagoz hartu beharra dago, bertan daukan hezkuntza helburua hertsiki eta lotuagoa baita, eta kirola praktikatzea,

berriz, hortik kanpo ezin lor litezkeen alderdiak formatu eta garatzeko ezinbesteko baliabidea delako.

Kirolik gabe, praktikan, ezinezkoa litzateke hainbat jomuga-multzo (aurrerago adierazten direnak, adibidez) erdiestea. Moreno-ren iritziz,, hain zuzen, hori sustatzea merezi du: "Eskola-kirolak bere baitan biltzen dituen hezkuntza- eta prestakuntza-alorretako helburuek kirola sustatzeko eta garatzeko erakundeek egin dezaketen inbertsioa erraz justifikatzen dute." (1998:173).

Kirolak, behar bezala baliatuz gero, sekulako balio pedagogiko mordoak dauka; areago, bera praktikatzen duenaren nortasuna gehien estruktura dezakeen giza errealizazioa izan daiteke. Behar bezalako baldintzetan kirola praktikatuz ez duen pertsonak bere hezkuntzaren funtsezko alderdi zenbaitetan hutsuneak izan ditzake, bestelako jarduera orekatzaileak egin ez bazituen. Horregatik, hain zuzen, ikaslearen heziketan kirola praktikatzea ordezkaezintzat jo ohi da (Seirul.lo 1995).

Horiez gainera, hainbat faktore etiko (elkartasuna, errespetua, elkarlana, etab.) agertzea bideratzen duen osotasuneko heziketa eta, bestetik, gaitasun kognitibo eta intelektualen lana biltzen ditu (Lapresa, Ponce de León, 2001).

Abantailazko heziketa baliabidea da, hitz batez, izakia bere osotasunean (fisiko, psikologiko eta sozialki) harzteaz gainera, gaztearen nortasuna formatzen eta bera aisialdirako prestatzen duelako. Zenbaitetan, ikaslearen hezkuntzaren kalitatea eta, beraz, bizi-kalitatea hobetzen lagun dezakete, garatzen diren testuinguruaren arabera hezkuntza helbururik dutenean (Hernández eta Velázquez, 1996).

Kirolaren ontasuna, ordea, ikaslearen ikuspegi indibidualetik ez ezik, taldearen ikuspuntutik ere justifikatzen da; LOGSE testuak dioenez, jarduera fisiko eta kirolezkoetan aritzeak beste zernahik baino gehiago hobetzen ditu taldeko harremanak.

Areago, horren perspektiba soziala ere aintzat jo dezakegu, ongizate indibidual eta kolektibo handiagoak izango dituen gizarte justu eta demokratikoagoa lortzeko premiarekin loturiko hezkuntza helburuak erdiesteko bide pribilegiatutzat hartzen delako (Hernández eta Velázquez, 1996). Autore hauen iritziz, "jarduera fisiko eta kirolezkoen garrantzi sozio-kulturala, egun, ukalezina da" (Ibid., 7).



Leintz Eskola-kirola (2007)

Dena den, gure egiten dugun desideratum hori errealitate bihurtuko bada, ezin saihestuzko premisa nagusi bat bete beharra dago: hezitzaile bat, helburu horiek transmitituko dituena, eta ingurune egoki bat (familia, programa, etab.), bideratuko duena. Betebehar horiek egiazko bihurtzen badira, erdietsi nahi dugun eskola-kirolaren utopia txiki hori lortua dugu.

Horrelaxe deritza Petrus-ek (1998:13): "Eskola-kirolari esker populazio-sektore gazteek taldearen jardute, pentsatze eta sentitzeko formak hobeto ulertu, bere arau eta balioak onartu ditzake eta ordena soziala arrazionalago bihur dezake".

Ildo horretan bertan, gure gizartearen arau eta balioen konplexutasuna, gure iritziz, ekipo batean ezartzen diren arau eta harremanen isla soildua da. Ikastetxe baten kirol ekipoa, adibidez, borondatez onarturiko sare bat da eta bertara biltzen dira bertako kideen nortasun

ezberdinak eta entrenatzailearena, honakoa baita gizarte txertatzea moldatzeko arduraduna, kirol formazioaren bidez eta pribilegiozko posizio batetik.

Eskola-kirolaren heziketa zerrenda zabaldu egin daiteke, gure gizartean —inoiz, curriculum akademikoan behar adinako edo behar bezalako tratamendua ematen ez bazaie ere— garrantzitsutzat jotzen diren hainbat gai erantsita.

Eskola-kirola oso espazio egokia izan daiteke, adibidez, hainbat gai transbertsal jorratzeko, hala nola sexuen arteko berdintasunera begirako hezkuntza, osasuna, kontsumoa, bakea, hedabide sozialetan, etab. (Pereda, 2000).

Ondorioz, eskolan kirola sartzeko justifikazioa begi bistakoa da: eskakizun soziala da, mugitzeko modu egokia da, astia positiboki betetzen du, gorputza zain-



Leintz Eskola-kirola (2007)

tzen du, harreman sozialetarako bitartekoa da, tenisioak askatzen ditu... (Díaz Suárez, 1999).

Eskola, gure aburuz, beharrezko mugimendu fisikoa haurrei eskaintzeko ingurune egokiena da; hori bai, adituen eskua beharrezkoa da hor, egungo gizarte urbanoan kideen arteko jolas eta jokoa konplexua baita (Knopp, 1998); eskolak, ikusi dugunez, hori bideratzen du.

Gai honetan mintzatzen denean, eskola-kirolaz agerituriko heziketa egokitasun oso honek ezkutuko osagai nabarmen bat falta du: adina, jorratzen ari garen pertsonaren formazioaren etapa jakina, horrek areagotzen baitu ikasitakoaren balioa, bai haurtzaroan, baita nerabezaroan ere. Horrela ikusten du Giménez-ek eta horrelaxe egiaztatzen dugu geuk, haurra hazten eta formatzen ari den periodoan kirola eta ariketa fisikoak praktikatzeari biziki garrantzitsutzat jotzen baitugu (1996).

Garrantzi hori bera ematen diote Snyder eta Spreitzer-ek ere (1976, in Torre, 1998), helduak kirolean izango duen praktika prestatzeko, haurtzaroak eta nerabezaroak erabateko eragina dutela baitiote.

Izan ere, bizitza estilo osasuntsua hartzeko sozializazio periodo egokiena da haurtzaroa, praktikan ohi dadin erabateko garrantzia dauka garai horrek; horrela, kirola praktikatzeari konnotazio utilitarioak baino errazagoa izango da konnotazio emozionalak bilatuz, hau da, bere arreta, interesa, motibazioa erakartzen dion zerbait, gozatzeko modukoa izango duen zerbait, nerabezaroan aztura horiek arras aldatzen direlako, jokatzea arrazionalagoa eta hausnartuagoa izaten baita: horregatik uzten dio gizakiak orduan kirola praktikatzeari (Tercedor, 2000).

Hein batean, nerabezaroaren ezaugarrietako bat, pertsona helduen eragina ahulago bihurtzea delako; go-

goan izan dezagun liskar pertsonalak etapa honetan ohiko ezaugarria direla, bizipoz edo asearen bilaketan geroagoko ibilbidea baldintzatu dezakeen periodo kritikoa baita hau (Rosich, 2000).

Beste aldetik, ordea, zein jarduera hautatuko duen eta nola praktikatzeko duen aukeratzeko autonomia eta askatasun handiagoa du ikasleak nerabezaroan. Bere interesetatik eta kirol aztura hori finkatzen lortzetik gertuagoko jarduera izango da, gaztetxo egungo gizartearen biziki nagusitu den (eta, finkatua dagoenean, saihesteko zail-zaila den) aisialdi pasibo horretatik urrunduko duena.

Ondorioa begi bistakoa da: eskola-kirola hezkuntzarako lanabes behin-etako bat da. "Helduoi" dagokigu gure seme-alabek hezkuntza alorreko bermeak izango dituen, beren premietara egokiturik egongo den, gure interesen orde, beraienak aseko dituen kalitatez jarduera izan dezaten, baliabide guztiak ezartzea (giza baliabideak, bereziki). Goazemazue, merezi du-eta.

Erreferentzia bibliografikoak:

- Arribas, H. (2000). Actividad física, ocio y educación: El valor de las actividades físicas recreativas. Hemen: *Aisialdiaren 6. Mundu Kongresua*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Cruz, J. (1997). Factores motivacionales en el deporte infantil eta asesoramiento psicológico a entrenadores eta padres. Hemen: Cruz, J. (biltz.), *Psicología del deporte*. Madrid: Síntesis.
- Cuenca, M. (1992). Educación del ocio eta aprendizajes organizados en el área metropolitana de Bilbao. Hemen: Deustuko Unibertsitatea (biltz.), *El ocio en el área metropolitana de Bilbao. Equipo de Investigación Interdisciplinar en Ocio*. Bilbo: Bilboko Udala, Kultura eta Turismo Area.
- Díaz, A. (1999). La competición deportiva en el ámbito educativo. Hemen: *Tercer Seminario sobre Fair Play en el deporte escolar*. Murcia.
- Fraile, A. (1999). Perspectiva crítica de una experiencia de deporte escolar. Hemen: *II Jornadas sobre sociología del deporte*. Málaga: Instituto Andaluz del Deporte (IAD).
- Gimeno, F. (2004). Descripción eta evaluación del programa: entrenando a padres eta madres. Hemen: *Actas del III Congreso Nacional de Deporte en Edad Escolar* (99-112. orr.). Sevilla: Ayuntamiento Dos Hermanas.
- Hernandez, J.L. eta Velazquez, R. (1996). *La actividad física y deportiva extraescolar en los centros educativos*. Madrid: MEC.
- Gimenez, F.J. (1996). La competición en la iniciación al baloncesto. *Apunt 46*, 42-49. orr.
- Knopp, P., eta beste batzuk (1998). *Clubes deportivos para niños y jóvenes*. Málaga: Instituto Andaluz del Deporte (IAD).

- Lapresa, D. eta Ponce de Leon, A. (2001). Cara y cruz en las funciones sociales desempeñadas por el deporte contemporáneo. *Revista Española de Educación Física y Deportes 8*, 7-11. orr.
- Larrarte, J. (1998). La organización del deporte escolar en San Sebastián. Hemen: *La Enseñanza de la Educación Física y el Deporte Escolar* (281-284. orr.). Almería: Instituto Andaluz del Deporte (IAD).
- Maiztegui, C. eta Pereda, V. (2000). Relación ocio, educación y deporte: un modelo de deporte escolar. Hemen: Maiztegui, C. y Pereda, V. (biltz.) *Ocio y deporte escolar*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Monteagudo, M.J. (1996). El ocio en los escolares de Zalla: actividades y aspiraciones. *Revista de Ciencias de la Educación 165*, 131-142 orr.
- Moreno Hernández, F. J. (1998). El deporte escolar como labor intencionada de intervención psicopedagógica eta de aprendizaje. Hemen: Ruiz, F., eta beste batzuk (biltz.), *Nuevos horizontes en la Educación Física eta el Deporte Escolar* (167-179. orr.). Málaga: Instituto Andaluz del Deporte (IAD).
- Petrus, A. (1998). Deporte escolar. Hemen: *Desafíos del Deporte ante el III Milenio*. Gasteiz.
- Ortuzar, I. (1999). Actividades deportivas para todos en medios no tradicionales. Hemen: *II Jornadas de Educadores eta Educadoras de Deporte Escolar* (21-40. orr.). Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- Ortúzar, I. (2005). *El deporte escolar y el profesorado de Educación Física*. Doktoretza tesi argitaragabea. E.H.U.
- Pereda, V. (2000). El deporte escolar eta su implicación en el centro educativo. Hemen: Maiztegui, C. eta Pereda, V. (biltz.) *Ocio y deporte escolar*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Ponce de León, A. (1998). *Tiempo libre y rendimiento académico*. Logroño: Errioxako Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- Rosich, M.M., eta beste batzuk (2000). Relación entre la satisfacción vital en el deporte de un grupo de adolescentes entre 12 eta 14 años. Hemen: *Aisialdiaren 6. Mundu Kongresua*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Seirul. Lo, F. (1995). Valores educativos del deporte. Hemen: Blázquez, D. (zuz.) eta Santos, M. eta Sicilia, A. (biltz.), *La iniciación deportiva y el deporte escolar*. Barcelona: INDE.
- Sicilia, A. (1996). El profesor de educación física en Andalucía. Cómo piensa, califica y desarrolla sus contenidos y actividades. *Habilidad Motriz 8*, 51-61. orr.
- Snyder, E. eta Spreitzer, E. (1983). *Social Aspects of Sports*. Prentice Hall: Englewood Cliffs.
- Torre, E. (1998). *La actividad físico-deportiva extraescolar y su interrelación con el área de educación física en el alumnado de enseñanzas medias*. Tesi argitaragabea. Granadako Unibertsitatea.
- Tercedor, P. (1998). *Estudio sobre la relación entre actividad física habitual eta condición física-salud en una población escolar de diez años de edad*. Tesi argitaragabea. Granadako Unibertsitatea.
- Tercedor, P. (2000). La práctica de actividad física como hábito saludable. Fundamentación e implicaciones didácticas. *Askesis 8*.

Ludomotrizitatea eskolan, posible al da horrelakorik?

Raúl Martínez de Santos Gorostiaga

UPV-EHUko Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzien Fakultateko irakaslea¹

1986ko ekainaren 22an, Argentinak kanporatu egin zuen Ingalaterra Futboleko Mundu Txapelketaren azken fasean, eta askorentzat haren mendeku berezia izan zen hori, Malvinetako gerran jasandako porrotarengatik. Eta hori aski ez balitz bezala, Azteca estadioa Diego Armando Maradonaren bi balentria gogoratuen lekuko izan zen, izan ere partidaren 54. minutuan, eta bere alor propioan hasi zuen lasterraldi batean zazpi aurkariri izkina egin eta gero, ostiko-pilotaren historiako golik bikainenetako bat sartu zuen.

Hala ere, topaketa hura gogoan dute, *Dieguitok* berak partidaren markagailua ireki zuelako ere, jokaldi mitiko batean baloia sarera bultzatuz, *jainkoaren eskuaren laguntzarekin*. Harrezkero, kasu hau erabili izan ohi da kirolaren filosofian *bateraezintasun logiko* gisa ezagutzen den hori argitzeko, hau da, tranpak eginez jokatzearen ezintasunarekin, tranpa eta jokoa bateraezintasun direlakoarekin: futboleko jokatzea, kasurako, eskuak erabiltzerik ez izatean badago, hain zuzen ere, eta hori bada Maradonak egindakoa, *boqueroa* ez zen futboleko ari hori egin zuenean eta, ondorioz, haren egitaden emaitza ez litzateke kontuan hartu beharko: hau da, Argentinak partida hura irabazi bazuen futbolaz bestetara jokatuz izan zela eta, kasu hartan, sekula ez ziren irten *txapeldun gisa* Mexikoko Mundu Txapelketatik.

Posible al da *jokoa*ren eta *eskolaren* arteko harremanak bateraezintasun motaren bat izatea, Morgane kirol tranpetarako azaltzen duena bezalakoren bat? Po-

sible al da jokoak eskola prozesuekin lotzean tranparen bat egiten aritzea era inkontzientean bada ere? Posible al da, beraz, jokoak, *laissez faire*-ak bezala heziketa paradoxaren bat sortzea, toleratzen edo gutxienez ulertzen ikasi behar duguna?

Hitz batean, *posible al da eskola eta jokoa bateraezintasun izatea?* Ezezkoan bazaude, ondoren datorrena interesatzen zaizu, izan ere nire helburua da erakustea zergatik kirol jokoei dagokienez, eskolaren eta eskolaz kanpokoaren eremuetatik hartutako trataera nahi denaz alderantzizkoa izan daitekeela, eta ez logikaren planoan bakarrik. Zeren eta, azkenaren buruan, eskola atazek aisia jardueren kontsiderazio bera har al dezakete? Eta bestaldetik, baldin eta eskola-kirola bada haurtzako eta gazteentzako kirol aisiaren adierazpen onartu bakarra, zer neurritan errespetatzen dira jardueren askatasuna eta autogestio printzipioak Administrazioak eragozten duenean heziketa helburretatik eraturiko programez kanpo esku hartzea?

Laburbilduz, benetan posible al da eskolak, den hori eta izan behar duen hori izateari utzi gabe, jarduerak eta ekin-tzak bere baitan hartzea, zeinen esanahi sozial eta personal barnekoenak *informaltasunetik* sortzen baitira?

Hausnartu aurreko definizioak (*burutazioak*)?

Ludomotrizitatea zer den ulertzea jokoa zer den ulertzea bezain erraza da... nahiz eta ez dirudien hain sinplea, aspalditik egozten zaion polisemia hori dela-eta

(Parlebas, 1988, 38). López de Sosoagak bikain argituriko gertakari horrek (2004), darama Henriot (1969, 15 eta 16 or), dena joko eta ezer joko ezin izan daitekeelakoaren aurrean, fenomeno horren hiru azterketa maila bereiztera: jokoa horretan ari denak *jokatzen duena* da, arau sistema bat den heinean; *jokatzen duenak egiten duen hori da*, egintza den heinean; eta jokalaria jokoa aritzera *eragiten duen hori da*, jokoa izate arrazoira eta jokoa izate posibilitatera berera igortzen duena.

Oraingoan, Henrioten adieretako bigarrena alde batera utzita, *Ludomotrizitateak*² bi planotako irakurketa bat onartzen du, txanpon baten bi aldeek bezala bata bestea bermatzen dutenak.

- Zerbait propioa eta jatorra egitean dautzan *jarduerak* diren heinean, ludomotrizitatea *joko motorren* multzo amaigabea da, zeinek beren aldetik ezin kontatu ahala egoera ludiko sortzen dituzten, zeinetan agenteak aritzen diren jokoei nahi duten bezala;
- Partaideen premia gutxi-asko kontzienteak asetzeko bilatzen duten jarduerak ludiko horien *praktika* diren heinean, ludomotrizitatea aisiaren eta olgeta motorren *praktika esparru* propio gisa kontsidera daiteke.

Jarduera fisikoak

Lehen planoari dagokionez, jarduera ludomotorrei *kirol joko* deitzea izaten da ohikoena, eta halakotzat hartzen dira arauen bitartez sortutako atazak, zeinetan agente-

ek elkarrekin harremanetan sartu behar duten oso era jakinean, edozein giza egoeraren oinarritzko lau ardatzekiko: *espazioa*, *denbora*, *materialak* eta *beste agenteak*.

Illo horretatik, jokoen izaera juridikoa aitortzeak beste jarduerak batzuetatik bereizten laguntzen digu, zeinetan jokalariek ez baitaude itxuraz ezein arauzko murrizketaren mendean baina praktika ludikoak edo aisiazkoak sor baititzakete (paseatu, perretxiko bila ibili, auzoari sagarrak lapurtu...) eta *ia kirol joko* izenda baitaitezke.

Edozein kasutan, jokoak, arauen bidez sorturikoak eta *lankidetzazko infrajoko*³ gisa diharduen errespetuzko oinarri-akordio batean bermaturiko *ataza motor* diren heinean, independenteak dira praktikazailen nola helburuekiko edo asmoekiko (horietaz geroago arituko naiz), hala haien munta sozial, historiko edo ekonomikoekiko:

- *Kirol joko instituzionalizatuak*, kirolak, arau sistema hedatu eta araztuak dira, eta haiei men egin behar diete jokalariek ez ezik baita gainerako kirol agenteek ere (entrenatzaileek, direktiboek, epaileek...) eta lege xedapen propioz horniturik egoten dira (legez, dekretuz, eta abarrez);
- *Tradiziozko kirol jokoak*, aldiz, duten ezaugarria da arau sistema izatea, jokoa aitogarria izan dadin ezinbestekoa bere baitan duena, nahiz eta malgutasun hori haren tradizio logikaren atal izan eta haren itxurazko aldakortasunaren atzean antzinatiko kultura motor baten korranteak ezkutaturik egotearen arrazoia ere bai,

¹ Autorearen helbide elektronikoa: raul.martinezdesantos@ehu.es

² «naturaleza y campo de las situaciones motrices que corresponden a los juegos deportivos» (Parlebas, 2001, 312 or.).

³ «fundamento del contrato lúdico consistente en un acuerdo previo, implícito o explícito, que comporta la adopción de reglas comunes que permiten la participación conjunta en un juego deportivo, sea o no institucional» (Parlebas, 2001, 263 or.).

Jokoak jarduera gisa, ataza motor gisa, pentsatzen ditugunean egoera ludomotorren aspektu haiek, eta hedapenez ludomotrizitatezkoak, bakarrik kontuan hartzer behartzen dugu geure burua

zeinaren enbor komuna (europarra gure kasuan) askoz garrantzitsuagoa baita hura estal dezaketen abarrak baino (Etxebeste, 2001).

Aurreko guztia gorabehera, bada kirol jokoen alde bat azpimarratu gabe utzi behar ez duguna, eta haren izaera motorra baizik ez dena: ludomotrizitatea azterketa isolatu baten gai izan daiteke, zeren eta, aisiaren eta jolasaren praktikak edukiz hornitzeko gai diren jarduera guztien artetik, kirol jokoez portaera mota berezi bat eskatzen diete pertsonai, *jokabide motorra*, zeinaren ezaugarria baita barne erlazio bat edukitzea *portaeren* gorputz taxueraren eta ekintzaren emaitzaren artean.

Gorputz bizipen mota berezi honek, heziketa fisikoaren, eta jarduera eta praktika fisikoak sustatzearen benetako arrazoia den honek pertsonaren *osotasunari* begira jartzen gaitu, oinarritzko lau zertzeladaren bitartez (Collinet, 2005, 7 or):

- *Dimentsioaniztasuna*: jokabide motorrak zerikusia du nortasunaren alderdi guztiekin;
- *Batasuna*: gizakia bakarra, banaezina, disoziaezina da;
- *Konplexutasuna*: pertsona erreduziezina da haren nortasunaren ezein dimentsiotara;
- *Historikotasuna*: jokabide motorra bizipen historiko, denborazko batetik sortzen da, nola banakoan hala sozialean.

Praktika fisikoak

Jokoak jarduera gisa, ataza motor gisa, pentsatzen ditugunean egoera ludomotorren aspektu haiek, eta hedapenez ludomotrizitatezkoak, bakarrik kontuan hartzer behartzen dugu geure burua, zeinek baitute zeri-

kusia sortzen dituzten arauekin, abian jartzen diren edo ez alde batera utzita.

Hala ere, jokatze horren helburuak ezagutzea interesatzen zaigunean, egintza ludomotorren esanahi pertsonal eta kolektiboak, jarduera fisikoei loturiko xedeak, txanponaren beste aldeari erreparatzen ari gara, ludomotrizitatearen irakurketa bat egiten ari gara horrela deituriko *praktika eremu* batek kulturalki gidaturiko premiak asetzeko prozedura den heinean, zeina beste egintza eremu batzuetatik desberdintzen baita, motorra izan edo ez, hartan sartzean arrazionalki ase daitezkeen helburuengatik.

Ludomotrizitatea, aisiaren motrizitatea, dibertsioa eta ongi pasatzea kontrajarri egiten zaizkio *ergomotrizitateari*⁴, zeina baita premia laboral eta enpresarialen, hitz batean, ekonomikoen zerbitzuan jokabide motorrak jartzen diren praktika eremua: lehenetik esperientzia atsegina besterik espero ez dugun bitartean, bigarretatik hilaren amaieran soldata bidezko bat baizik ez baita espero izaten.

Baina ikus dezagun. Hori egia delarik, definizioz, zer eratako praktika burutzen du futbol-jokalari profesionalak, gure Maradonak berak esaterako, *kontratuz* ari denean? Hau da, jarduera mota berean arituko al litzateke *karitatezko* ongintza partida batean arituko balitz, edota ezkongabeen eta ezkonduen arteko kirol partida batean? Bestela esateko, zer motrizitate era dagokio futbolari? Egoera ludomotorra ala ergomotorra dago?

Erazagoa da erantzun zuzena asmatzea, baldin eta kontu egiten bazaio jarduerak eta praktikak ez nahasteari, hau da *zertan* jokatzen den eta *zertarako* jokatzen den, ikusten ari garenez: jokoa eta haren praktika, hitz batean. Futbolak, adibidez, praktika baterako baino gehiagorako aukera ematen du jokatzen den testuinguruaren arabera, eta era berean praktika eremu bera, demagun profesionala, jarduera mota askotarikoz, kirol askotarikoz betetzen da. Lehen galderari erantzun go diogu, beraz, kirolari profesionalaren praktika fisiko, batez ere, laborala dela, lana dela.

Bigarren auziak ere ez du argudio handirik behar: beste kontsiderazio batzuk alde batera utzita (ez txikiagoak, baina bai une honetan baztergarriak), denok bat etorriko ginatke gure jokalariek aurrez aurre daukan *ataza motorra* aipaturiko hiru egoeretan (liga partidakoa, ongintzakoa eta jaietakoa) bat eta bera dela. Arra-


zoi horrengatik, esan liteke, beraz, hiru kasuetan jarduera berean esku hartzen ari dela: futbol partida batean.

Puntu honetara iritsita, beraz, azken galderari erantzuteko moduan egon beharko genuke: zer motrizitate mota dagokio futbolari? Saillkatze ariketa apal honen arrakasta dago erabiliko ditugun nozioek *“futbolari ludomotrizitatea dagokio”* eta *“futbolari ez dagokio ludomotrizitatea”* baieztapenak biak egiazkoak izatea saihestearen baitan, edota bietako bat ez dela ez jakin ahal izatean; eta gauza bera gertatzen da *“futura ludomotrizitateari dagokio”* eta *“futura ergomotrizitateari dagokio”* baieztapen parearekin.

Horrengatik, itxuraz sinplea den galdera horri dagokion erantzunak, lehenik, kontuan izan behar du *jarduerara/praktika* binomioa, eta bigarrenik, ludomotrizitateari dagokion beste elementu batekiko integratuko di-

tuen kontzeptu bat maneiatzea. *Praktika eremuak* nozioa ulertzen bada *jarduerari esleituriko funtzio bera partekatzen dituzten partaideak biltzen dituzten egoera motorreko testuinguru sozialak*, horrek aukera ematen digu errealitatearekin bidezkoak izatea baina gure definizioak kutsaturik gertatu gabe beste ikuspuntu batzuetatik bakarrik bereizgarriak diren zertzeladekin.

Jarrai dezagun futbolarekin, ez aldatzearren, eta pentsa dezagun zer baldintzak, inguruabarrek edo arrazoik azaltzen duten joko hori praktikatzeko. Nire kasuan honako panorama hau zirri-marratzera iritsi naiz eta bertan 6 eremu agertzen dira: horrek esan nahi du, nahita edo nahi izan gabe, futbolariak testuinguru hauetakooren batean garatzen dutela beren jarduera, eta zeinetatik abiatu, gainera, interpretagarria baita esanahi sozial edo kulturala egotzi ahal izango dieten gainerako pertsonentzat.



1.Figura: *Kirolaren praktika arloak (futbolaren kasua)*

⁽⁴⁾ «campo y naturaleza de las prácticas motrices consideradas un “trabajo” por las instancias sociales y abordadas básicamente desde el punto de vista de la aplicación corporal que suscitan» (Parlebas, 2001, 191 or).

Horietako asko aldi berean esku hartze eremu izatea alde batera utzirik, gero ikusiko dugunez, hautaturiko zertzelada muntadunak ondoren datoz laburki azaldurik:

- Praktika *finalizatza* hartzen da maila gaintzea bilatzen ez duena, jardunean bertan agortzen dena, ondorengo efekturik ez errendimendurik bilatzen ez duena;
- Jarduera *auto-organizatuak* praktikatzaileek berek arautuak dira, zeinak gai baitira arauak aldatzeko edo sortzeko;
- Praktika eremu bat *arautua* da existitzeko legeek edo arau juridikoek sortua edo erregulatua izatea behar duenean;
- Praktika *kurrikularra* izango da haren erregulazioa derrigorrezko irakaskuntzaren zehaztapen mailetakoren bati dagokionean;
- Azkenik, praktika lehiakorra *formatiboa* izango da praktikatzaileen gaitasun motorren garapenera orientaturik dagoenean eta ez kirol errendimendu jakin bat lortzera.

Zertzelada horiek ez dituzte agortzen aukera guztiak baina praktika eremuen mapa bat egitea ahalbidetzen digute, lehen planteaturikoaren moduko auziak zehaztasun handiagoarekin pentsatzeko: badira argi eta garbi ludomotorrak diren eremuak, kale-futbola esaterako, eta beste batzuk argi eta garbi ergomotorrak dira, profesiona esaterako. Horrela ikusita, ez du zentzurik galdetzeak ea futbola jarduera ludomotorra den, zeren eta hori haren praktikaren ezaugarri bat baita, gertatzen deneko testuinguruaren baitan dagoena.

Hala ere, orain hasierako auzia era operatiboagoan formula daiteke, eta jokoa eta eskola bateragarriak diren planteatu beharrean, auzi bikoitz horri erantzuten saia gaitzke, eta horixe egingo dut: *zer praktika eremu dira heziketa fisikoa eta eskola-kirola?*

Eskoletan ez da jolasten

Eskola eta ludomotrizitatea bateragarria izateko bi baldintza bete beharko liriteke: lehenik, eskola eremuak kirol jokoa sustatzea; eta bigarrenik, horrela sortutako jokoen eta kirolaren praktika praktikatzaileen olgeta helburuen eta ez beste inoren zerbitzuan egotea.

Begi-bistakoa da heziketa fisikoko ikasgaiak ezin dituela bi eskakizunak ase aldi berean, nahiz eta edozein ikastetxetako edozein irakasleren eskola edukien atal oinarritzak izan kirol jokoa, haien praktikak ez du bi-

latzen ikaslearen gogobetetasuna, baizik eta efektu eta errendimendu objektiboki ebaluagarri gisa ezarritako helburu kurrikular batzuk lortzea.

Derrigorrezko hezkuntzaren eta kirol jokoen artean dagoen benetako erlazioa ulertzeko, orain arte erabili gabeko nozio batera jo behar dugu: *esku hartze motorreko eremuak, zeinak baitira praktika fisikoa agintzen, santzionatzen edo orientatzen duten testuinguru sozialak.*

Horrela ikusita, heziketa fisikokoaren ikasgaiak sorturiko jokoen eta kirolen praktika *esku hartze motorreko* prozesu baten osagaia da, zeina baita *beste pertsona baten esperientzia baldintzak aldatzearen efektua haren gaitasun motorra eraldatzeko helburuarekin*, eta hori *jokabide motorren balioespen soziala* besterik ez da.

Futbolaren gisako kirol bat ikasgelako programazioetan agertzea onarpen tazitu bat da, futbolaren praktika kurrikularrak eremuari dagozkion moldaera propio guztiakin taldearen tamainari, espazio -eta denbora- anto-laerari, egokitzapen kurrikularrei eta abarri dagokienez, eta horrek ahalbidetu egingo du Ministerioek eta Kontseilariak aurreikusi eta agindutako helburuak betetzea: *“esku hartze arautuzko praktika”* bat (Parlebas, 2001, 172 or) izatean, heziketa ekintza hedatu egiten da Parlamentuan hasi eta ikastetxeetako jolastokietan amaitzen den zehaztapen mailen hierarkia batean.

Joko tradizionalak eta kirolak heziketa fisikoko bitarteko gisa erabiltzea errore bat dela esan nahi al du horrek? Ezta gutxiago ere, nahiz eta hala izango litzatekeen ez ohartzea kirol jokoa ikasgelan haien barne logika eta kanpo logikaren zertzelada nagusiak ikasteko erabili behar direla, *egintza motorren domeinuen* ordezkari gisa lehen kasuan, eta *kirol jokoen familien* ordezkari gisa, bigarrenen. Ideazioa teoriko bat izan ordez, irizpide hori ezin hobeki eraman daiteke ikasgelara eta heziketa fisikoko ikasliburuen garapenera, betiere arloko egiazko pertinentzia: jokabide motorra ordeztu nahi ez badute behintzat. (Martínez de Santos, 2006; Martínez de Santos, Blanco, y Gil Gil, 2005, 2006).

Gainera bi ohar egin daitezke esku hartze motor kurrikularrari buruz:

- Lehenik, heziketa fisikoko eskola batean proposaturiko joko tradizional edo kirol oro *eskola jarduera* izatera pasatzen da. Dugasek (2004) aztertu egin ditu horiek jasaten dituzten eraldaketak joko



Malen Balerdi (2007).

didaktiko bihurtzen direnean, betiere ulerturik *“irakasleek kodeturiko egoera multzo gisa hezkuntza arauen eta xede pedagogikoen arabera”* (14 or), eta ondorio honetara iritsi da, Frantzian *“kirola joko didaktiko bihurtzeak kirolaren kanpo logika babestea dakarrela, hau da, haren aura mediatikoa eta haren ikusgarritasuna, zeina batzuetan haren barne logikaren ezaugarri batzuen kaltetan gertatzen baita”* (15 or).

Heziketa fisikoko irakasleak, bere betebeharra denez esango nuke nik, ez dituzte diren bezala aurkezten kirolak, ez dituzte proposatzen lehiaketa motorreko egitura arauzko berak, baizik eta haren ezaugarriak gutxi-asko presente daude: saskibaloien kasuan, adibidez, Dugasek egiaztatzen du nola baloia, hala saskia eta erlazio egitura, joko errealekoa bera dela, eta, aldiz, gunea, hiru punturen lerroa, zelai erdiaren erregela eta hiru segundorena ez direla ia inoiz agertzen.

- Bigarren auziak, aurrekoak egiten ez bazuen, badu zerikusia *kirolen irakaskuntza metodologiarekin*. Ziur nago, esparru horretan har dezake zentzu osoa adierazpen horrek eta ez hainbeste kirol iniziazioan, hori futbol-jokalariaren prestakuntza faseetako bat bezala kontsideratzen denean. Devís eta Peirók (1997) gogoeta egin zutenean *heziketa fisikoan zeuden ikuspegi kurrikular berriei* buruz, joko modifikatuena, *teaching games for understanding* bezala ezaguturiko proposamenaren zuzeneko oinordekoa izan zen haietako bat (bestea osasuna izan zen).

Brenda Readek (1990) azaltzen duenez, 1982ko Thorpe eta Bunker-en proposamena, bigarren hezkuntzako ikastetxeetan jokoak irakasteko eredu berri batenak “lehen aldi agerian jarri zuen kirol jokoen irakaskuntzari buruz gogoeta egiteko premia zegoela”, Ingalaterran gehituko nuke nik, zeren kontinentean (Frantzian gutxienez) eztabaida hori hasita baitzegoen askoz lehe-



Naia Astarloa Fernandez de Arroiabe (2007)

nagotik (gogora dezagun *Colloque Internacional Sports Collectifs de 1965*). Hala ere, korrante horrek gure artean izan duen inpaktuak gainditu egin ditu berrikuspen didaktikoaren hasierako mugak, baita gogoeta kurrikularrarenak ere (oraindik oso gutxira arte ez zegoen heziketa fisikoko kurrikulurik Ingalaterran) *metodo konprentsibo* deituriko kirol prestakuntzari aurre egiteko era berri bat bezala proposatzeko, zeinean prestakuntza taktikoa teknikoaren aurretik ezartzen baita (Holt, Streat, y García Bengoechea, 2002; Hopper, 2002; Kirk y MacPhail, 2002).

Auzi horiek alde batera utzita, hainbestearino da hori horrela, non kirol jokoen praktika kurrikularra olgetarekin, ludomotrizitatearekin bateraezina izatearen arrazoia haren izate hutsaren lehen baldintzak asetzearen irizpideak ezartzen du, zeinak baitira beren aldetik eredu jakin baten baitakoak, zeinean dibertsioa xede izatetik bigarren maila batera pasatzen baita eta aprendizaiaren baldintza hobereenen zertzelada gisa bakarrik

hartu behar baita kontuan. Demagun irakasle batek frogatu egin nahi duela ikasgelan ekintza motorreko logika batzuk *beste batzuk baino dibertigarriagoak* direla, beste *aspergarriago* batzuekiko kontrastean bakarrik egin ahal izango luke hori, eta horrek ez luke adieraziko aspertzea ikastetxean sustatutakoa zenik. Eta aspertzea ez bada, dibertsioa ere ezingo litzateke izan.

Hitz batean. Defenditu badut sentituriko plazera praktikaren zertzelada bat dela, eta onartzen badugu ludomotrizitatea praktika motorreko eremuen multzoa dela, plazera bilatze horrek bakarrik sustatua eta ez beste ezerk, heziketa fisikoa bateraezina da kirol jokoen praktika ludikoekin, zeren eta *esku hartze eremu* desberdinetako bat baita, zeinetan haren praktika *trazendentala* baita Komenioren erara: ez da praktikatzen besterik gabe baizik eta ona edo komenigarria delako pertsonaren hiritarraren edo profesionalaren formakuntzarako, *jokabide motor normalizatu* baten eraikuntzako egitasmo gutxi-asko formalen atal izanik, *ortometri-*

zitateko irizpide espezifiko baten arabera⁵ (Parlebas, 2001, 345).

Aurreko guztiarengatik, ez al dago nahikoa arrazoi ikasgelan ez dela jolas egiten esateko?

Eskola kirolean ez da jokatzeko

Zerbaitek ezaugarritzen badu kirolen presentzia heziketa fisikoan haien zertzelada nagusia, lehiaketa, haiei kentzea da. *Kirol praktika kurrikularra ez da kirol praktika lehiakorreko* trebatze bat, baizik eta *jokabide motorrak* orokortasunean garatzeko bitarteko bat, *ekintza motorreko domeinu* bakoitzaren gaitasun motor propioen idealizazio gisa ulertua, izan ere, heziketa fisikoaren espezifikotasuna ikusirik: era derrigorrezkoan eskolan futbola praktikatzeko aukera eman dezake lankidetzaren oposizioko logiketara moldatzea garatzeko, gune fisiko egonkorretan eta arrisku lehiakorreko baldintzetan, *Administrazioak* horrela eskatzen duenez.

Hala ere, eta eskola eta ludomotrizitatea bateraezina direla onartu eta gero, zein da haur eta gazteen kirol aisiaren praktika eremu propioa? Eta lehen adierazitako arrazoi berengatik, geure buruari galdetu behar diogu: zer eraldatze mota gertatzen dira kirol jokoen praktikaren gainean gure eskola-kirolaren gisako testuinguruetan txertatzen direnean?

160/1990 dekretutik, Eskola Kirolarenetik abiatuta, zeinak garatu baitzuen Kultura Fisikoaren eta Kirolaren 5/1988 Euskal Legearen aspektu hori, eskola-kirola Euskadin kontzeptu zeharo argia da, kontuan hartzen bada gainera haren kontzeptu gunea ia batere aldatu gabe mantendu dela Euskadiko 14/1998ko kirolaren Euskal Legean.

1990ko dekretuaren 1. atalak honela zioen:

“Ikasleek, irakastaldiz kanpoko denboraldian, hezikuntza sisteman sartzen direnetik hasi eta unibertitate aurreko eskolatze aldia amaitu bitarte burututako soin-kirol jarduerak jotzen da eskolako kiroltzat.”

Gaur egun indarrean dagoen legerian, bere aldetik, eta eskola-kirolari dagokion dekretuaren gabeziak, honela definitzen du: *“ikasleek nahitaezko eskolatze aldian irakas orduetatik kanpo egiten duten kirol jarduerak antolatua izango da eskola-kirola.”*

Hala ere, deskriptiboegia ez den definizio batez haragotago, eskola-kirolari buruzko legegilearen egiazko ja-

rrera argi geratu zen 88ko Legearen 11.4 atalean, zeinean aipamen berariazkoa egiten baita eskola-kirolak izan behar zituen funtzioena edo berdin dena, kirolari haur eta gazteei onargarri eta eskagarri zaien eta ordutik mantentzen den praktika motari *«Eskoletan egingo den kirola lehiaketarako xedezko bakarrik ez, kirol mota guztietan arituzkoa izango da baizik, honela, eskolan dabilzan guztiek, mailaz maila, bakoitzaren gaitasunaren eta adinaren arauera, kirol mota ezberdinen aribidezko jakintza izan dezaten»*⁶.

Zer inplikazio ditu horrelako agindu batek? Zer ondorio pertsonal eta kolektibo ditu praktika eremu bat esku hartze eremu bihurtzeko? Zeren horixe baita, hain zuzen ere, euskal eskola-kirola 1990az geroztik, non espero den efektu sail bat formulatzeaz gainera, irizpide *arauemaile*, gutxi-asko betetako batzuk markatzen baitira, jarduera bat Aldundien Urteroko Egitarauan sartua izan dadin?

Berriz diot. Baiezta al daiteke kirol praktika kurrikularra gobernu helburu batzuen zerbitzuan jartzea, direnik eta goresgarrienak izanda ere, ez dela lehena galtzeko modu hobereena eta bigarrenak ez lortzeko? Zeren eta gure ikasleen derrigorrezko heziketa fisikoa hobetzea bada helburua, ez al litzateke hobeto izango ikasgaia errebortzatea, kirolak eta haien tradiziozko praktika ahultzea baino, balio ez dutenerako erabiltzen saiatu beharrean?

Egia handia da kirol bat praktikatzeko berekin daramala entrenatze prozesua; edo gauza bera dena, kirol entrenamendua, hasierakoa, hobekuntzako edo errendimenduko, esku hartze eremu bat dela. Hala ere, horrek ez du esan nahi heziketa fisikoaren izaera bereko esku hartze eremu bat denik, zeinean dagoeneko ikusi baitugu ez dela sartzen ludomotrizitatea: entrenamendu saioen esanahia Garate nahi den gaitasunaren funtzioak determinatzen du, eta batez ere, esanahi hori darien testuinguru sozialak eta instituzioek.

Eskola-kirolek eragiten duten entrenatze saioek sustaturiko kirol gaitasun motorra lege testu batetik etortzeko eta ez komunitate batek kirol praktikari egotzitako balio sozial, moral batetik heziketa fisiko formal batetik hurbilago kokatzen du egiazko ludomotrizitate baina. Eta aurreko kasuan ulergarria zena orain onartezin gerta daiteke. Urtero Ordena baten bidez onarturiko eskola-kiroleko foru egitarauak kirol kurrikulu aizun bat dira eta, gainera, inork ezin du egiaztatu hura betetzen den ala ez.

⁵ «características y campo de una motricidad considerada buena, “recta” y justa» (Parlebas, 2001, 344 or.).

⁶ Hizkuntza-estiloan nabari den alde sentituz aparte, ohar berriz gaztelaniazko formulazioak interpretazio desberdinetarako aukera eman dezakeela: «La práctica del Deporte Escolar será poli-deportiva, y no orientada exclusivamente a la competición, de tal manera que todos los escolares, de forma cíclica, conozcan en su práctica diversas modalidades deportivas de acuerdo con su aptitud y edad»

Gauza interesgarria izango litzateke, ostera, haurren eta gazteen kirol jarduketaren balio hezigarria zergatik pasatzen den gaur egun emaitzen zabalkundea ezabatzen edo ukatzen

Beharrik balego, enpirikoki argitu daiteke izaera gramatikaleko prozesu sozialak legez arautzearen efektua (Martínez de Santos, Ruiz de Gordo, eta Pérez, 2004). Zer praktika mota gertatzen da Arabako eskola-kirolean? Zein da eskola-kirolaren hobespeneko funtzioa haren protagonisten, kasu honetan ikastetxeko koordinatzaileen aburuz?

Condorceten *parekako hautespenaren* teknika erabiliz (Martínez de Santos, 2003) inkesta bat pasatu zitzaizen eredu funtzional oso sinple batetik abiatuta, zeinean egozten baitira hiru helburu edo asmo posi-

ble eskola-kirolean esku hartzeko, fenomenoaren hiru kontzeptzio sortuko lituzketenak: *heziketakoa*, pertsona formatzea dela garrantzitsua uste dutenentzat, *olgetakoa*, kirolean dibertsio iturria nagusitzen denentzat, eta *lehiaketakoa*, kirolariaren prestakuntza fase bat bezala ikusten dutenentzat. Sinesteez eta nahiez galdetzeaz gainera, galde-teknikak eskaintzen duen zalutasunaz baliatuz eskola-kiroleko beste agentei: praktikatzaileei, entrenatzaileei eta gurasoei buruzko *sineste-igurikapenez* galdetzen zitzaizkien.

Honako taulan ageri diren emaitzek mapa interesgarri bat erakusten dute: koordinatzaile batzuen iritziak, Arabako eskola-kirola ez da beharko lukeen bezalakoa (heziketakoa), baina haien ustean praktikatzaileen, entrenatzaileen eta gurasoen nahiak ez dira egokitzen izan beharko lukeenera baizik eta den horretara: praktika lehiaketakora. Gainera, errepresentazio kolektibetatik inkonsistentzia indibidualak ondorioztatzen dira, izan ere Collardek (1998) arriskua aztertzean egiten duenez, planteaturiko hiru aukerak bereizteko zailtasuna egotz dezakegu, eskola-kirolaz hitz egitean: *Condorcet efektua* da espero dezakegun gutxienekoa ordenak eta ordenamenduak elkar errespetatzen ez dutenean.

	heziketakoa	olgetakoa	lehiaketakoa
Nolakoa den	2º	3º	1º
Nolakoa beharko lukeen	1º	2º	3º
Beste koordinatzaileen arabera	1º	2º	3º
Gurasoen arabera	3º	1º	1º
Partaideen arabera	3º	2º	1º
Entrenatzaileen arabera	1º	1º	1º

1. Taula. Ikastetxe koordinatzaileen talde errepresentazioak Arabako eskola-kirolaz



Naira Astarloa Fernandez de Arriabe (2005)

Azterketatxo honek agerian jartzen du gustu eta hobespen sozialak legez ordenatzeak duen zailtasuna: haurren eta gazteen kirol praktikaren araubidezko ordenamenduak onurak baino atsekabeak gehiago sortzen ditu, zeren eta kasu horretan gutxienez, kontrolatu nahi diren dinamikak legea aldarrikatu nahi denaren konbikzioa baino indartsuagoak baitira, eta hori oraindik argiago geratzen da legea ezartzeaz arduratzen diren foru entitateek dituzten bitartekoak haztatzean.

Emaitza hauek aukera ematen dute gogoeta sakonagoak egiteko eta galde eragiten digu ez ote garen ari urrunegira eramaten *gorputzen erregulazio xedatzailea*, *bourdiar* formulazio distiratsua alderantzira jartzeko. Zeren, aldrebeskeria ote litzateke galdetzea horietako zein den *praktika legitimoa*? Inondik ere ez, zeren eta seguruena, hori baita hainbeste atsekaberen, hainbeste desakordioen eta hainbeste zentzugabekeriaren azken arrazoia. Zeren eta lege testuetatik ate-

ratzen bada praktika legitimoa heziketakoa dela, nahiz eta errealtateetik ondorioztatu kirolekoa, lehiaketari lotua dela, nagusitzen dena, Denon Eskola moduko elkarteek ez al dute ziorik uste izateko, klubek bezala, logika hezigarriari atxikitzen ez zaizkienek zor zaien bitarteko formatzaile bat usurpatzen ari zaizkiela?

Litekeena ote da, beraz, arazoaren muina lehiaketa izatea? Inolako zalantzarik gabe halaxe da, nahiz ea horrek azalpento bat behar duen. Lehiaketa (7) ez da ezaba edo dilui daitekeen kirolen gehikin bat: lehiaketa da kirolen barne logikaren ezaugarria, gainerako guztiak bere inguruan artikulatzen dituen, eta kaltegarritzat joz gero kirolik ez egitea beste irtenbiderik ez dago.

Gauza interesgarria izango litzateke, ostera, haurren eta gazteen kirol jarduketaren balio hezigarria zergatik pasatzen den gaur egun emaitzen zabalkundea eza-

Haurren eta gazteen kirol praktikak dagoeneko ez badu bere burua justifikatzen eta bere esanahi ludiko primarioa galtzen badiu, ez al daude arrazolak eskola-kirolean ezin dela jokatu uste izateko?

batzetik edo ukatetik. Kirola egitea ezin liteke hezi-garria izan bere baitan baldintza onargarri eta zentzuzkoetan jardunez gero? Zergatik dagoeneko ez dira aski kirolaren antzinako balioak, hala nola, ahalegina, norberaren eta inoren mugak onartzea, agintariak eta arauak errespetatzea? Non eta noiz utzi zion kiroltan jokatzeko hezi-garria izateari eta ekin behar izan zion bere burua justifikatzeari bitarteko gisa bere baitan xede bat zelarik?

Eskola-kiroloren dekretu berriaren zirriborro ia behin betikoan aldaketa oso esanguratsuak nabari dira, bide nabar esateko, Kirolaren Euskal Planean jadanik proposatuak, nahiz eta aldatu ez diren gauza oso esanguratsuak ere badauden: aldundien eskola-kiroloren Programei buruz (3. atala) honako hau dio:

1.- Lurralde historikoetako foru organoek urtero onartuko dituzte eskola-kiroolari buruzko programak. Programen helburuak hauek izango dira: ikasleei osotasuneko eskola heziketa osatzea, ikasleen nortasuna modu orekatuan garatzea, gorputz eta osasun ezaguri jakin batzuk lortzea, eta geroago kirola egiten jarraitzea posible egingo duen prestakuntza ematea.

2.- Eskola-kiroleko jarduerak arautuko dituzten joko-eta lehiaketa-erregelamenduak, herrialde historiko-etako foru organoek onartuko dituzte, Eskola Kiroleko Euskal Batzordearen alde aurretiko txostenarekin.

3.- Eskola-kiroleko programek, gehienera, hiru kirol ibilbide izango dituzte beren baitan:

- a) Kirol partaidetzako ibilbidea.
- b) Errendimendura hasieratzeko ibilbidea.
- d) Kirol talentuak eta promesak identifikatzeko ibilbidea.

4.- Kirol ibilbide desberdinen barruan honako jarduerak mota eskaini ahal izango dira:

- a) Irakas jarduerak.
- b) Lehiaketa jarduerak.
- d) Detekzio jarduerak.
- e) Beste jarduerak batzuk.

Galdera bat baino gehiago daukat buruan: bateragarriak al dira ibilbide guztiak 3.1 atalarekin? Ibilbideak kirolaren praktika moduak al dira aurreko azterketan ulertzen ziren moduan? Ziur al gaude eskola-kiroloren edozein praktika motak balio duela garapen integrala lortzeko? Eta horren aurretik, zein da legegileak etengabe aipatzen duen euskal gazte integralki garatuaren eredua? Baliokideak, parekagarriak al dira jarduerak motak aurkezten diren ibilbidea alde batera utzita ala balio propio edo jatorrak izango dituzte?

Nahiz eta aitortu errealitate konplexura egokitze ahal-egina, zeinaren kudeaketa hoberena, paradoxaz, aurtokudeaketa izango bailitzateke, ziur al gaude ez gara ari mezu anibalente bat ematen? Zeren eta ez bazeu uko egin nahi kirolak sustatzeari, zer neurritaraino da bateragarria kirol formazioko prozesu bat eskola-kiroloren helburuekin? Zer neurritaraino laguntzen du kirol espezializazioak nortasuna harmonikoki garatzeari? Zer puntutaraino, hitz batean, proposa daiteke kirol praktika heziketa fisiko orokor baten gisara, dagoeneko esan dudanez? Besteak beste, baldin eta kontsideratzen badugu haurren kirol praktika ez dela gomen-dagarria soilik, baizik eta ezinbestekoa biharko hiritarrentzat, ez ote genuke derrigorrezko bihurtu behar, baldin eta kirolak sustatu beharreko balioak baditu eta/edo kirolak gizarte bateko *balioak* transmititzen laguntzen badiu (Giménez Fuentes-Guerra, Sáenz-López, y Díaz Trillo, 2005; Gutiérrez, 1995)?

Hitz batean. Haurren eta gazteen kirol praktikak dagoeneko ez badu bere burua justifikatzen eta bere esanahi ludiko primarioa galtzen badiu, ez al daude arrazoiak eskola-kirolean ezin dela jokatu uste izateko?

Hausnartu ondoko burutazioak

Tradiziozko kirol jokoa galdutzat eman da aspaldidanik, dagoeneko ez baita ikusten haurrik kalean jolas egiten, nahiz eta horren ez duen esan nahi ez dela jolas egiten: edota Wii edo PlayStation ez al dira plazer ludiko egiazkoenaren iturri agortezinak? Hala ere, eztabaidatu nahi izan dudana auzia, era bitxi samarrean nahi bada ere, izan da ea oraindik lekuri geratzen zaion gure

artean ludomotrizitateari, jokoan eta kirolen praktika ludiakorako, pleonasmoak alde atera utzita.

Egiati gisa, ez nago oso ziur horrela denik, nahiz eta oraindik zailago zaidan hori derrigor txarra den jakitea, zeren eta beti askatasun indibidualei eta kolektiboari eta hiritarren garapen afektiboan baldintzatzeko orduan estatuak hartuko duen zereginari emango diegun balioaren baitakoa izango baita. Praktika motorreko bi eremuak, izatez, esku hartze motorreko eremu arauemaileak dira zehaztapen maila desberdinekin, eta horietako lehenaren gain, heziketa fisikoko ikasgaiaren gain, pixkanaka garrantzia galtzen ari dela oinarritzko hezkuntzan esatea besterik ez badago egiterik, bigarrenari eska lekioko gogoeta sakon bat egitea fenomeno esentzialki sozial bat fenomeno nabarmenki juridiko bihurtzearen ondorioei buruz.

Kontua ez da anarkia edo akrazia defenditzea. Bai ordea gehiegizko kontrol publikoak egintza motorreko testuinguruaren gain etorkizuneko hiritarren garapenerako izan ditzakeen ondorioetara arreta erakartzea. Badakigu tradiziozko jokoak sozializatorako elementu bikainak direla (Etxebeste, 2001), eta horrela direla, hain zuzen ere, hizkuntzek bezala jokatzeko dutelako, munduan ibiltzeko gramatika bat emanez *hiztunari*. Ezerk ez digu eragozten kirolen praktikak baduela *per se* gaitasun formatzaile bera pentsatzea, nahiz eta horretarako aukera eman behar zaien egitura eta instituzio propioetatik aritzeari, balioaren eta esanahiaren lehen iturria izateko aukera eman behar zaie.


Hasi dudana bezala amaitzera noa: *Ludomotrizitatea eta eskola, posible al da horrelakorik?* Eta gauza bakarra erantzutera ausartzen naiz: onartzeko prest gauden baino askoz gutxiago.

Erreferentzia bibliografikoak:

- Collard, L. (1998). *Sports, enjeux et accidents*. Paris: PUF.
- Devís, J., eta Peiró, C. (Eds.). (1997). *Nuevas perspectivas curriculares en educación física: la salud y los juegos modificados* (2ª ed.). Barcelona: INDE.
- Dugas, E. (2004). Des pratiques sociales aux pratiques scolaires en EPS: des logiques de scolarisation plurielles. *Revue Française de Pédagogie* 149, 5-17 orr.
- Etxebeste, J. (2001). *Les jeux sportifs: éléments de la socialisation traditionnelle des enfants du Pays Basque*. Doktorego-tesi argitaratugabea, Universidad de Paris V-René Descartes, Paris.
- Giménez Fuentes-Guerra, J.; Sáenz-López, P. eta Díaz Trillo, M. (Eds.). (2005). *Educar a través del deporte*. Huelva: Universidad de Huelva.
- Gutiérrez, M. (1995). *Valores sociales y deporte. La actividad física y el deporte como transmisores de valores sociales y personales*. Madrid: Gymnos.
- Holt, N. L.; Streat, W. B. eta García Bengoechea, E. (2002). Expanding the Teaching games for understanding model: new venues for future research and practice. *Journal of Teaching in Physical Education* 21, 162-176 orr.
- Hopper, T. (2002). Teaching games for understanding. The importance of student emphasis over content emphasis. *JOPERD* 73(7), 44-48 orr.
- Kirk, D. eta MacPhail, A. (2002). Teaching games for understanding and situated learning: rethinking the Bunker-Thorp model. *Journal of Teaching in Physical Education* 21, 177-192 orr.
- Martínez de Santos, R. (2003). Propuesta metodológica para el estudio de las representaciones sobre el deporte escolar. Presentado en III Congreso de la Asociación española de CC de deporte, Valencia.
- Martínez de Santos, R. (2006). Educación física, libros de texto y praxeología motriz. Presentado en X Seminario Internacional de Praxiología Motriz, Vitoria-Gasteiz.
- Martínez de Santos, R.; Blanco, F. J. eta Gil Gil, Á. (2005). *Educación Física, 1º y 2º ESO*. Madrid: Pila Teleña, Ocatredo.
- Martínez de Santos, R.; Blanco, F. J. eta Gil Gil, Á. (2006). *Educación Física, 3º y 4º ESO*. Madrid: Pila Teleña, Ocatredo.
- Martínez de Santos, R.; Ruiz de Gordo, I. H. eta Pérez, D. (2004). Representaciones sobre el deporte escolar a través de los coordinadores de las entidades participantes en el programa 2002-2003. Presentado en III Congreso Nacional de Deporte en Edad Escolar "Deporte y Educación", Dos Hermanas (Sevilla).
- Parlebas, P. (2001). *Juegos, deporte y sociedad. Léxico de praxiología motriz*. Barcelona: Paidotribo.
- Read, B. (1990). Enseñanza de los juegos deportivos: cambio de enfoque. *Apunts* 22, 51-56 orri.

Haur eta gazte literatura:

2006 Irakur gida



Argitaratzailea:

Mondragon Unibertsitatea,
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Erredakzioa Idazkaritza:

Mondragon Unibertsitatea
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko
Haur Liburu Mintegia
Dorleta Auzoa, z/g
20540 - Eskoriatza
Tfnoa: 943 714 157 - Faxa: 943 714 032
E-mail: liburutegia@huhezi.edu
www.huhezi.edu

Irakurleak:

Nerea MendizabalArrasateko Udal Haur Biblioteka
Marina EtxegoienOñatiko Udal Haur Biblioteka
Arantza IbarondoOñatiko Udal Biblioteka
Igone BasabeBergarako Udal Biblioteka
Jasone ErostarbeLegazpiko Udal Biblioteka
Olga JauregiAramaioiko Udal Biblioteka
Oskar LoitiEskoriatzako Udal Biblioteka
Txaro UrrutiaAretxabaletako Kurtzeberri Eskola
Gurutze UrrutiaAretxabaletako Kurtzeberri Eskola
Lucia CalveroAretxabaletako Kurtzeberri Eskola
Izlar MauraAretxabaletako Kurtzeberri Eskola BHI
Itzi AguirianoArizemendi Bastola, Eskoriatza
Ana EtxeberriaEskoriatzako Eceiza Eskola
Marikarmen ApraizHumanitate eta Hezkuntza Zientzien
Fakultatea - Eskoriatza
Ninbe HigueriaHumanitate eta Hezkuntza Zientzien
Fakultatea - Eskoriatza
Nerea AlzolaHumanitate eta Hezkuntza Zientzien
Fakultatea - Eskoriatza

Azala:

Jokin Mitxelena
Maketazioa: A. Azkarate
Inprimategia: Antza inprimategia

"Haur eta Gazte Literatura, 2006. Irakur Gida" talde baten lan jarraituaren eta liburu askoren irakurketaren emaitza da. Guraso, irakasle eta bibliotekariarentzat lagungarri izan nahi du. Ezin du irakurketa zuzena ordezkatu, ezta irakurketak sortzen duen plazera bera ere, ez baita talde honek egiten duen irakurketaren adierazpena baino.

Talde honen lan-teknika honetan datza: haur eta gazte literaturaz 2006. urtean euskaraz publikatu dena irakurri, irakurketak kontrajarri eta hizkuntzaren erabilpena, kalitate literarioa, gaiari ematen zaion tratamendua, etab. kontutan baloratzen du.

Liburuen zerrenda orokorraren ondoren sailkapen bat egiten da: liburu gomendagarriak eta oso gomendagarriak. Azken horien erresena bat gehitzen zaio.

Bestalde, agertzen den adina orientagarria besterik ez da, bilakaera-erritmoak, haurren zaletasunak, etab. sailka ezinak baitira. Talde honen ustetan, hurrek liburuaren aukeraketa librea egitea oinarritzkoa da, eta irakurketaren grina sortzeko, funtsezkoa.

**Eskuartearen gida hau
izan nahi baduzu;
behean agertzen den
helbide elektronikoa
eskuragarri izango duzu!**

Fitxa didaktikoak:

Argiak eta erabilgarriak

Maddi Urbietta eta Izaskun Luis de Cos (2007). *Monitore eta irakasleentzako fitxa didaktikoak. Haur txikiendako ur-jarduerak*. Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzuak.

Debarroan eta Debagoienean ezagunak dira fitxa didaktiko hauek, baina Euskal Herriko eskualde guztietara hedatu nahi ditugu, oso erabilgarriak direlako. Kirolaren esparrua euskalduntzeko sortu zen ekimen interesgarria duzu aurrean.

Aipaturiko eskualde horietako udalek urtero beka deialdi bat egiten dute, euskaraz,

ekintza fisikoa eta kirolaren inguruko fitxa didaktikoak argitaratzeko. Eskola kirolean, heziketa fisikoan, kirol elkarrekin eta kirol zentroetan dabilzan teknikari, monitore eta irakasleei zuzendurik daude. Jada 26 ale argitaratu dituzte, besteak beste boleibola, pila-tesa, gimnasioko txirindularitza, areto futbola, rugbia, kirol alternatiboak, kirol egokitu, yoga, aerobika, hirugarren adinerako gimnasia, oinarritzko soin hezkuntza, surfa, natur ekintzak, haur txikiendako ur jarduerak, etab ...

Jarraian adibide pare bat:

• Ur gainean

KOLTXONETAN ETZANDA

Zenbait materialek, haurra uretara ohitzen joateko aukera eskaintzen dute. Horrela, haurra erabat uretan sartu aurretik, koltxoneta gainean etzanda jarri, ura gorputz guztian senti dezan. Gainera beste haurrekin batera dabilenean, koltxoneta besteekin elkar banatu beharko du.

Aldaerak:

- *Ahoz beheara nahiz ahoz gora ere egon daiteke haurra koltxoneta gainean etzanda.
- *Eserita jartzen ere saiatu, gurasoen laguntzarekin.



• Uretara sartu eta egokitu

ZIURTASUNEZ

Ziurtasunez helduta, sartu haurtxoa pixkanaka uretan. Mantendu horrela ur barruan, hitz egin eta goxatuz.



BESARKATUZ

Gurasoak haurra besarkatuz, elkarrekin sartuko dira uretan sorbaldeetara. Gorputz kontaktuak ziurtasuna ematen dio haurrari.

Aldaerak:

- *Haurra uretan gustura dagonean ur tanta batzuk bota diezazkiokegu buru gainetik. Hasieran aurpegia busti gabe, baina gero hori ere busti.



KULUNKATU

Haurra besoetan hartu, beso bat haurraren lepo azpian eta bestea aldaka azpian jarrita, lokartuko bagenu bezala. Pixkanaka kulunkatzen dugun heinean, uretan sartu.



SAIOAK 1-2 URTE

HELBURUA: Haurrak ertzari heltzea eta askatzea, eta bertatik jarduerak egitea.

MATERIALA: Besoetako flotagailuak.

Hasiera edo gilotzea

Gurasoak eskaileretan eserita edo igerilekuaren ertzean eta haurrak gurasoen hanken artean eserita.

- Irakaslea parean jarriko da eta hurrengo ariketak proposatuko ditu:

1. Euria egiten duela jolastuko gara.
2. Eskuak, aurpegia, sudurra, begiak... garbitu behar ditugu.
3. Elkar zipriltintzen jolastuko gara.
4. Ureztatu, nork bere burua eta gainontzekoak.

- "Busti-busti" jolasa: irakasleak esaten duen gorputz atala busti behar da (adib.: "busti busti belarria")

Zati nagusia**ZIRKUITUA:**

Haurrek, besoetako bi flotagailuak jarrita, ondorengo sei posizioak hartzea lortu behar dute gurasoek:

- Izkinan egon: haurra igerileku ertzaren ondoan, beso edo eskuekin ertzari helduz. Gurasoa haren atzean kokaturik, haurrari eskua eman diezaion eskatuko dio.
- Zintzilikatu: zintzilik, igerilekuko barandari edo bazterrari helduta desplaza daitezela toki jakin bateraino.
- Oinak altxa: haurra bi eskuz ertzaren helduta dagoelarik, oinak atzerantz altxatzen lagunduko dio gurasoak, gero astin ditzan. Hasieran kosta egiten da, baina gerora bizkarra okertzearen teknika hau menperatzea gustatzen zaie.
- Bazterretik askatu: haurra tarte txiki batean bere kabuz igeriketan hasten da, bazterra askatuta. Gurasoek harrera egin eta animatu behar dute.
- Eseri: Haurra ertzaren eserita jarririk uretara salto egin eta aurreko ariketa errepikatzea eskatuko diogu. Ondoren berriro salto egin dezan eskatu eta aurreko ariketa errepikatzen da.
- Altueratik salto: ur azalez metro bat altxatzen den horma bat (edo taula batzuk zutabe bat osatzen) edo altuera berdina duen beste zerbait erabili daiteke. Haurrek batzuetan nahiago izaten dute altuera honetatik salto egin bazterretik baino.

Barealdia**ZALDI LASTERKETA:**

Gurasoek beraien haurrak bizkarrean jarriko dituzte zaldun tankeran eta gurasoak zaldien papera hartuko dute. Ondoren ilaran jarriko dira igerileku bazterrean eta, irteteko agindua ematean, korrika abiatuko dira igerilekuaren beste alderaino. Lehen iristen denak irabazten du.

Izaskun Uribealgo
Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultateko irakaslea



Naia Astarloa Fernandez de Arroiabe (2007)

